JOKIN APALATEGI

# HAURREN NAZIOAK

## Solasaldiak

Utriusque Vasconiae

© Jokin Apalategi
© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko ekaina
ISBN: 84-932654-0-3
Depósito legal: BU 368-2002
Azaleko marrazkia: Itsaso Kondearena Apalategi, Iruña
Hizkuntz orrazketa: Pilartxo Etxeberria

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

## AURKIBIDEA

SARRERA .................................... 9
ZER ULERTZEN DUGU KATEGORIA NAZIONALITARIOAZ? .. 15
ESTADIO KOGNITIBO-AFEKTIBOEN TEORIA ........... 21
INKESTA PIAGETIARRAREN APLIKAZIOA ETA EMAITZAK .. 29
NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN ........................ 33

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 33
1.1. Araba, (D eredua,Gasteiz) ............ 33
1.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo) .......... 35
1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia) ........ 37
1.4. Nafarroa, (D eredua,Iruña) ........... 38
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 40

2. Adierazpen afektiboa ..................... 41
2.1. Araba, (D eredua,Gasteiz) ............ 41
2.2. Bizkaia, (D eredua,Bermeo) ........... 41
2.3. Gipuzkoa, (D eredua,Donostia) ........ 42
2.4. Nafarroa, (D eredua,Iruña) ........... 43
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 43

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN ........................ 45

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 45
1.1. Araba, (B eredua,Gasteiz) ............ 45
1.2. Bizkaia, (B eredua,ikastetxe pribatua, Zornotza) ........................ 47

1.3. Gipuzkoa, (B eredua, ikastetxe pribatua, Donostia) .......................... 48
1.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz) .......... 50
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 51

2. Adierazpen afektiboa ..................... 52
2.1. Araba, (B eredua, Gasteiz) ........... 52
2.2. Bizkaia, (B eredua, ikastetxe pribatua, Zornotza) ........................ 52
2.3. Gipuzkoa, (B eredua, ikastetxe pribatua, Donostia) ........................ 53
2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz) ........... 53
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 54

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, A IKASKETA EREDUAN ....................... 55

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 55
1.1. Araba, (A eredua, Gasteiz) ........... 55
1.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo) ........... 57
1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 58
1.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain) ......... 59
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 61

2. Adierazpen afektiboa ..................... 62
2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz) ........... 62
2.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo) ........... 62
2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 63
2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriaian) ........ 63
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 64

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 9-11 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN ....................... 65

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 65
1.1. Araba, (D eredua, Gasteiz) ........... 65
1.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo) ......... 67

1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia) ....... 68
1.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña) .......... 70
Adin sailari buruzko gogoeta ............ 72

2. Adierazpen afektiboa .................... 73
2.1. Araba (D eredua, Gasteiz) .......... 73
2.2. Bizkaia , (D eredua, Bermeo) ......... 74
2.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia) ....... 74
2.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña) .......... 75
Adin sailari buruzko gogoeta ............ 75

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 9-11 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN ..................... 77

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 77
1.1 Araba, (B eredua, Gasteiz) ............ 77
1.2. Bizkaia, (B eredua, Zornotza) ......... 79
1.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia) ....... 80
1.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz) ........... 82
Adin sailari buruzko gogoeta ............ 83

2. Adierazpen afektiboa .................... 84
2.1. Araba, (B eredua, Gasteiz) .......... 84
2.2. Bizkaia , (B eredua, Zornotza) ........ 85
2.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia) ....... 86
2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz) ........... 86
Adin sailari buruzko gogoeta ............ 87

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 9-11 URTE ARTEKO HAURRAK, A IKASKETA EREDUAN ..................... 89

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 89
1.1. Araba, (A eredua, Gasteiz) ........... 89
1.2. Bizkia, (A eredua, Bilbo) ........... 91
1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 92
1.4. Nafarroa, (A eredua,Beriain) ......... 93
Adin sailari buruzko gogoeta ............ 95

2. Adierazpen afektiboa ..................... 96
2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz) ........... 96
2.2. Bizkaia ,(A eredua, Bilbo) ........... 96
2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 97
2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain) ......... 97
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 98

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 12-14 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN ........................ 99

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 99
1.1. Araba, (D eredua, Gasteiz) ........... 99
1.2. Bizkaia ,(D eredua, Bermeo) ......... 100
1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia) ....... 101
1.4. Nafarroa, (D erdeua, Iruña) .......... 101
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 102

2. Adierazpen afektiboa ..................... 103
2.1. Araba, (D eredua, Gasteiz) ........... 103
2.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo) ......... 104
2.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia) ....... 104
2.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña) .......... 105
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 106

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 12-14 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN ........................ 107

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 107
1.1. Araba, (B eredua, Gasteiz) ........... 107
1.2. Bizkaia , (B eredua, Zornotza) ......... 108
1.3. Gipuzkoa , (B eredua,Donostia) ....... 109
1.4. Nafarroa, (B erdeua,Aoiz) ........... 110
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 111

2. Adierazpen afektiboa ..................... 111
2.1. Araba , (B eredua, Gasteiz) ........... 111
2.2. Bizkaia , (B eredua, Zornotza) ......... 112
2.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia) ........ 112

2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz) ........... 113
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 113

NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 12-14 URTE ARTEKO HAURRAK, A IKASKETA EREDUAN ........................ 115

1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa ...... 115
1.1. Araba , (A eredua, Gasteiz) ......... 115
1.2. Bizkaia , (A eredua, Bilbo) ........... 116
1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 117
1.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain) ......... 118
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 119

2. Adierazpen afektiboa ..................... 119
2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz) ........... 119
2.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo) ........... 120
2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun) ........... 120
2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain) ......... 121
Adin sailari buruzko gogoeta ............. 122

INKESTAREN IRAKURKETA LABURBILTZAILEA ETA KONPARATZAILEA ................................ 123

1. Ezagutzako estadioen bilakaera ............ 123
2. Gidaritza pedagogikoen eragina nazio ideiaren bilakaeran. Euskal Herriko hiru ikasketa ereduen lekukotasuna ..................... 128
3. Herrialdeak nazio ideiaren bilakaeran ....... 130

ONDORIOAK ................................ 133

IRUDIEN ERANSKINA ........................ 135

BIBLIOGRAFIA ............................ 151

# SARRERA

Ikerketa honen aurkezpenean, egoki eta zuzen dirudigu, Jean Piagetek Anne-Marie Weilen laguntza eskergarekin, 1951n, "Le développement chez l'enfant, de l'idée de la patrie et des relations avec l'étranger" izenez argitara eman zuela gogoaraztea, zeren egun irakurleari eskaintzen diogun gure lan hau aitzindari haien ildo beretik joanaz Euskal Herrian aplikatzen baita. Ikerketa mamitsu baten emaitza zen haiena. Ibilaldi luzearen amaieran ondorio finko batzuetara ailegatzen ziren: "Lehena, haurraren baitan, norberaren aberriaren aurkikuntza zein bestearenaren ulermena egozentrismoa gaindutuz gero elkarkidetasunezko harremanen lorpenaren arabera egiten dela. Bigarrena, lorpen gradual horrek, etengabe, desbideratzeetarako lera duela, hain zuzen, bilakaeraren maila berri edo gatazka berri bakoitzeko, molde hedatu edo soziozentrikoekin aurki gindezkelarik, hots, egozentrismoaren birragerpenarekin. Ondorioz, arazo nagusia ez dela haurrari zer erakutsi ala zer ez erakutsi behar zaion aztertzea; aitzitik elkardidetasun pentsatuek eta bizituek egiten duten objektibitatearen eta ulermen afektiboaren lanabesa formatzeko moldea hautatzea litzatekela"[1].

1962 eta 1963 urteetan G. Jahoda eskoziarrak Jean Piageten eta Anne Marie Weilen ikerketa Eskozian aplikatzean haien ondorioak berretsi zituen. Honela, 1962an, "Development of Scottish Childen's Ideas and Attitudes About Other

---

[1] J. Piaget, *Etudes sociologiques*, Librairie Droz, Génève,1977, 305-206 orr.

Countries" entseguan, ondoko ondorioak atera zituen: "Gertakizunen proportzioa klase sozialarekin esanguratsuki asozituta zegoela, klase sozial bakoitzaren barnean desberdintasun indibidualak zeudelarik. Taulan adinari erreferentziarik ez egiteak desorienta gaitzake. Hiru mailak, 6-7, 8-9 eta 10-11 adinen ezaugarri joerekin bat datozela sala daiteke, baina aldaeraren arrangoari ezin zaio garrantzi gehiegi eskaini.

Aurkikuntzaren beste alde desberdin batzuk aipamen labur bat merezi dute. Haurren gogoetan atzerritarraren izatea, pigmentazio eta hizkuntza desberdintasunekin, molde partikularrean asoziatzen zela, eta ezer gutxi ezagutzen zutenari edozer egozteko gai zirela. Erdi mailako haurrengan baino langile klaseko haurren artean egungo aurreiritziei buruzko bat-bateko azalpenak komunagoak zirela.

Hedatutako iritziaren aurka, beste herrialde batzuekin senitartekoen bitartez eratzen diren harreman pertsonal zuzenak, zeinak normalak diren Eskozian, ez dute informazio iturrietatik datozenak baino kontzepzio egokiagoa sortzen. Hemen, mass medietan gertatzen den moduan, beste elementu batzuek parte hartzen dutela dirudi.

Agian, aurkikuntza deigarrienak haurren ideiengan eta jarrerengan egungo gertakariek duten eraginari erreferentzia egiten dietenak dira. Haur gazteenetariko anitzek errusiar sputnikei buruz zerbait entzun dute eta honek euren kontzepzio eta jarrerengan eragina du. Eremuari dagokionean, Errusiari buruzko irudia larderiatsua baina teknologikoki aurreratua dute, zeinak Ameriketako diseinu kromatuarekin eta atseginarekin positiboki kontrastatzen duen ("Haren gauzarik haundiena filmeak izanik"). Ordutik hona, Bretainia Haundiak Amerikar balentriei eskainitako publizitateak balantza orekatzen lagunduko luke, baina funtsezko emaitza ondorengo ikerketa batek euskarrituta etorri beharko litzake. Zentzu honetan baliagarria izango litzateke, beraz, egungo bi botere nagusiei buruz herrialde desberdinetan helduek mantentzen dituzten iru-

dien ikerketa (bere fokapen orokorrean, esterotipoen zerrenda bilutsi ohikoari kontrajartzen dena)"[2] .

Autore berak, 1963an, beste entsegu bat argitara eman zuen: "The development of Scottish Children's Ideas About Country and Nationality: the Conceptual Framework". Bertan, nazionalitate kontzeptuaren bilakaera aztertzen zen aurretik egindako ibilbidea osoturik uzten zen berean.

1966an, berriro gai bera ikertu zuten. Oraingoan, G. Jahoda eta H. Tajfel ziren autoreak. Beren ikerketaren ondorioak, "Development in Children of Concepts and Attitudes About Their Own and Other Nations: a Cross-National Study", artikuluan jaso ziren. Ikerketa honen berritasuna, sei-zazpi urteko haurretan beste herrialdeen ezagutza enpirikoa minimoa denean ere, beren orientabide afektiboak ongi ezarriak agertzen direla erakustea izan zen.

Beharrezko diren lehen-saio hauek orokorrago den galdera bat formulatzera eraman zuten H. Tajfel: noiz, eta nola lortzen ditugu, lehen aldiz, kategoria sozialen konnotazioak. 1981ean, H. Tajfelek, "Human Groups and Social Categories: Studies in Social Psychology" argitaratzean, zera ondoriotzen zuen, "haur txikietan, gizarteen balore sistema primitiboetan bezala, goi sendikidetasuna ageri da klarki". Honek guztiak, beste ondorio batzuetara bezala, memoria kolektiboaren transmisioa ikastera garamatza, memoria indibidualaz eta bere sorrera sozialaz, memorien pluralitateaz (gogora ekar dezagun memoria kolektiboa polo afektibo eta kognitiboaren artean zatiturik dagoela) eta memoria desberdinen batasunaz planteatzen diren arazo guziekin.

Interpretazio aukerak ugariak dira. Bata, memoria indibiduala taldean norbanakoek jokatutako errolaren dependen-

---

[2] G. Jahoda, "Development of Scottish Childrem's ideas and attitudes about other countries", *The Journal of Social Psychology*, 1962, 58, 106-107 orr.

tzian legokeela da. Honela, memoria kolektiboaren elkarkidetasun printzipioa, talde batek beste taldeekin, memoria kolektibo batek beste memoria kolektiboekin ukanikako lotura anitzei legokiekeen memoria kolektiboaren aldaketa indibidualizatuaren ideiak salbatuko luke. Nire memoria bada, aldi berean, adieren memoria eta adiera horiekiko askatasunarena izanen litzateke: sorta eta gurutzaketa[3]. Bestea litzateke, memoria indibidualaren lauki sozialen eta talde memoriaren laukien artean suposatzen den elkardidetasunaren ordez, memoriaren diskurtsoaren eraketa bat dagoela memoriaren praktika sozialari buruzkoa izaki[4].

Funtsean, elkarkidetasun pentsatu eta bizituaren arazoaren edo kategorizazio sozialaren identitateari dagokionean gabiltza. Honela, Rabbie eta Horwitzek, 1969an, "Arousal of ingroup-outgroup bias by a Chance win or loss" artikuluan, eta 1971n, Tajfel, H., Flament, C., Billing, M., & Bundy, R.P., autoreek "Social categorization and intergroup behaviour" artikuluan, taldeko partaide bezala portatzera eta definitzera norbanakoa eramaten duten baldintza minimoez galdezkatzen dute. 1979-1986 urteen artean, Tajfel eta Turner irakasleek identitate sozialaren teoria definitu zuten ondoko printzipio teoriko hauek atereaz: 1) Norbanakoak identitate sozial positibora ailegatzen (edo gordetzen) saiatzen dira. 2) Identitate sozial positiboa, parte haundi batean, nirea den taldearen eta beste zenbait talde egokiren artean egin ohi den konparaketa aldekoan oinarritzen da. Taldea beste talde erreferentzialetatik positiboki bereizita hauteman behar da. 3) Identitate soziala asegarri gertatzen ez bada, norbanakoak, taldea uzten saiatzen dira beste talde positiboago batean sartzeko, ala eta beren taldea zentzu positiboan, berezgarri bihurtzen ahalegintzen dira.

---

[3] M. Halbwachs, *Les cadres sociaux de la mémoire*, Felix Alcan, Paris, 1930.

[4] G. Namer, *Mémoire et société*, Méridiens Kincksieck, Paris, 1987.

Sorburuan Jean Piagetek landu zuen ikerketa honen eremuan bilakaera bikaina egin dela esan dezakegu gaur. Bestalde, galde dezakegu, zergatik aberriaren ideia eta atzerritarrarekiko harremanak aztertzetik identitate sozialaren eztabaidara igaro garen. Esan dezagun identitate nazionalitarioa edozein identitate sozialentzat eredu behinena dela, hots, aldi berean soziala eta kognitiboa den formazio bat dela, zeren identitate soziala talde sozialetara atxikitzeagatik igarotzen den ni autokontzeptuaren partea baita. Honela, portaera nazionalitarioa, argitasun osoz, aurrerapen psikologikoen eta determinante historiko, kultural, politiko, ekonomiko eta abarren sorta eta gurutzaketa litzateke aldi berean. Norbanako oro kategoria edo posizio sozial, eta erreferentzia idiosinkratiko anitzez zeharkatuta bizi da, eta ezpairik gabe, kategoria nazionalitarioa horietarik garrantzitsuena da. Eta Estatu-nazioaren formakera eman delarik ere, bere erraietan ez dira urtu prozesu nazionalitarioak sortzeko gai diren atxikimendu potentzial desberdinak, are Estatu-nazioak sortzean eman diren inposaketa eta hautaketa arbitrarioek inmunizatu egin dituzte. Honela bada, Estatu-nazioen erraietan beti hor atzematen dira tirakai historiko, linguistiko, kultural, ekonomiko eta abar sostengaturik memoriaren lauki sozialak, hots, antzinatean gizarte globaletan normen sortzaile bezala errol bat ukan duten elementuak. Elkar ezagutuz eta nola funtzionalki hala psikologikoki elkarrekin arituz interdependentzia egoeran bizi diren norbanakoez konposatutako entitateak dira.

Gatazka nazionalitarioei buruz behin irakurketa berri baterako koordenada teorikoak ezarriz gero, seinala dezagun, Estatu-nazioak kategoria nazionalitario gutitu eta menperatuen aurka gehienetan etsaia, tentsioz betea eta genero guzietako presioen eragilea den erakunde unibertsoa sortu izan duela. Hori horrela, dena posible da Estatu-nazioak kategoria sozialei konfiskatutako jabego arrazionalitatean eta solidaritate endotaldetiarretan oinarritutako konformitate prozesu bat pizteko ahalari dagokionean. Elkar baztertzen ez diren solidarita-

tearen hiru interpretazio dira posible. Lehena, operatorio eta estrategiko alorrekoa da: solidaritateari esker, erakundezko presioen edo beste talde aurkari batzuenen aurka eraginkortasun haundiagoz defenditzen dira taldeko kideak. Bigarrena, alor psikologikokoa da: nahiz eta taldea operatorio eta estrategiko eginkizunean sokorri emaile ez izan, taldeko kideen ezagutza ukaiteak gozadura dakarkie. Hirugarrena, kultur alorrekoa da: taldeko kideen artean elkartasuna ereiten da zeren eraikitzen dagoen identitatera ailegatzeko prozesu bera elkarrekin batera bizitzen baitute.

Non gaude identitate nazionalitarioei dagokienean? Noiz emango zaio beharrezko den garrantzia Jean Piagetek egindako azpimarratze honi: "Psikosoziologia totalitate globalez mesfidatu behar da harremanen edo interdependentzien sistemak ezagutzen saiatzeko?"[5]. Zein dira mugak?

Galdera hauek ihardesten saiatuko gara identitate nazionalitarioen kategoria partikularretatik hasita.

[5] J. Piaget, *Etudes sociologiques*, op.cit. 307 orr.

## ZER ULERTZEN DUGU KATEGORIA NAZIONALITARIOAZ?

René Johannetek[6], 1918an, sortutako nazionalitario terminoa, gaur oraino egokiena deritzaigu abertzaletasuna deitutako sentimentu kolektiboa izendatzeko, zeina beren burua gobernetzeko bokaziodun talde homogeneoei asoziaturik baitoa. Bereizita bizi nahi luketen taldeen artean etengabeko borrokaren karietara pibote psikikoaren gisako zerbait formatzen da, bere inguruan sentimentu, desirio, nahikeri eta estimatze epaiketa guztiak automatikoki kokatzen direlarik. Homogeneo bezala hautematen ditugun baloreen finkaketa dago honela.

Hau esan da, jakin argi dakigu "nazionalitario" terminoarekin izendatzen dugun errealitate soziala, aldi berean, formaz bezala mamiaz konplexua eta denbora-espazioan aldakorra dela. Baina, bizitza duten fenomenoen definizioak oro, edo bizitzaren izaeran parte hartzen dutenak oro, kasu berean leudeke.

Indar nazionalitarioen jokua beti eta nonahi era berean finkatzen da. Antropologia modernoak aski ongi esplikatu digunez denborarekin Humanitatea dibertsifikatu egin da. Milaka talde nazionalitario egon da munduan. Egia da ere Estatu-

---

[6] R. Johannet, *Le principe des nationalités*, Paris, 1918.

nazioa dela eta ehunka talde nazionalitario desintegratu dela. Gaur egun oraino, nola Europak hala gaineatiko munduak mosaiko itxura daukate talde nazionalitarioei dagokienean. Garbi dago Europako jendetza ez dela bakarra hizkuntzari, erlijioari, administrazioari, tradizioari eta aspirazioei dagokienean. Oraino garrantzi gehiagoko dena, bertan talde diferentziatu bezala irauten dutenak, ez daude prest elkarrengandik asimilatzen uzteko, edo euretariko baten barrenean betirako suntsitzeko.

Talde nazionalitarioa, bada, defini dezagun denboran sakonki errotutako errealitate potentzialki unibertsal bezala. Berez doana da halaber, kategoria nazionalitarioak jendetza tipo guztientzat balio duela, hots, "primitiboentzat" bezala "zibilizatuentzat", urrutikoentzat bezala hurbilekoentzat. Baina, hala ere, talde nazionalitarioen artean kategoria dibertsoak bereizi beharko genituzke. Lehenik, administrazio propio bat, estatu izan gabe, noizbait eratu ukan dutenak daude. Honela denean, errealiatate nazionalitarioa ez da sortzen egitate politiko baten ondorio bezala, nahiz eta garbi dagoen, eskabide nazionalitarioa beti politikoa dela. Gero jarraian, beste aro batean Estatu autonomoak eratu izan dituztenen kategoria nazionalitarioa dago nahiz konkistak eta bortxa jarraituak pairatu denborarekin manupeko taldeekin errenkadan bilakatu dira, hots, hizkuntza eta administrazio diferenteekin aurkitu dira. Finean, historian aspaldidanik Estatu bat osotu dutenen kategoria nazionalitarioa daukagu, hots, geroztik beti iraupen eta finkotasun nazionalen izakia dutenena. Funtsean, aipaldi honetatik atera behar dugun ondorioa zera da, errealiatate nazionalitarioaren mantenimendua, zenbait kasutan, Estatuaren presentziari lotuta egon daitekeela, baina nazionalitarioaren nozioa, bere printzipiozko izaeraz, bere bilakaeraz eta bere manifestazioaz autonomo dela. Estatua, orduan, akzidentala dela nazionalitarioaren definizio unean, altxatu eta desegin erraz egin daitekelako, aldiz nazioa antropologikoa izanik humanoen kategoria (soziala eta kulturala denaz ari gara, noski) jakin batek irauten dueno hor izenen dela beti.

Tamalgarria dena XVIII. mendeaz gero errealitate nazionalitarioekin elkartu den dimentsio ideologikoa izan da: Estatu-nazioaren autokrazian datzana, alegia. Bi konposatzaile dauzka: lehena, frantses nazioaren egitate fundatzaile bezala frantses Iraultza kontsideratzetik datorkio, eta bigarrena, Estatua eta nazioa berdindu nahi izatean datza.

Lehenari dagokionean, esan dezagun, nazioak iada erdi aroan existitzen zirela Europan nahiz eta aro horretan Estatuak oinarri monarkikoan altxatu izan. Zentzu honetan aipa daitekena da, Inglaterraren menpeko ehun urtetako Gerra garaian frantsesek agertzen zuten sentimentu nazionalitarioa, Vlamyn "gora Nazioa" oihukatu zuten frantses iraultzaileena, alegia, edo oraino Alemanengatik erasotuta sentitu ziren frantsesena gauza bera zirela. Hala ere, erabili dugun perpausa dela eta zenbait ñabardura egin dezagun. Konparaketako lehen eta hirugarren solas-gaien kasuan aurrez kanpoko beste batzuek gobernatu dituzten talde ororen baldintzetan kokatzen gara. Bigarren solas-gaian, aldiz, XVII. mendeko humanitate anaikidearen ideia daraman nazio nozioaren interpretazioan gaude. Tiranoen izaerari mamiki lotutako askatasun ideia da. Baina tiranoak suntsituz gero, ezerk ez zukeen oztopatu beharko nazionalitarioek beren izaeraren diferentzia bizi zezaten. Baina, ezta horrela izan, aitzitik, arbitrarioki nazionalitario nozioa humanitarioari oposatu izan zaio. Esan dezagun, XVII. mendeko anaikide unibertsalaren ideiak, gauzatzeko orduan, hizkuntzen, sistema juridiko eta administratiboen berdinketa osora gizarteak bortxatuz hori lortzeko erregimen inperialista beharrezko izan zela.

Estatua eta nazioa berdintzeari dagokionean, jada esplikatua dugu euren eremuan ez dagoela interdependentzia esentzial, jarraitu eta nahitezkorik. Egia da ere noizbehinka nazioak eta Estatuak lotura estua agertzen dutela, baina nazioaren definizioa ematekoan ez dago zergatik Estatuaren funtzioan hori definitu beharrik, ez da alderantziz ere, noski; bi lerro desberdinetako talde gertakizun autonomoak adierazten dituzte, nola for-

mazioari hala bilakaerari dagokienen, arau desberdinei obeditu, eta bata bestearekiko zerikusirik ukan badezakete baina agian bat ere ez.

Gogoetaren estadio honetan galdetzekoa da zenbaterino J. Piaget ohartun izan zen, lehen itxurara berdinak diren bi galdera nahasteak dakartzen zailtasun espezifikoez: hots, haurrak nola egiten duen bere aberri propioaren eta bestenaren deskubrimentu progresiboa, aldi berean, kognitiboa eta afektiboa den koordinazio lanabes bat lankorki eraikiz, batetik, eta nazionalismoarako aldez aurretik duten joera partikularren bilakaera eginaz, bestetik? Lehenak, guk antropologiko bezala definitu dugun nazionalitario errealitatearen deskubrimendua adieraziko luke. Bigarrena, Estatu-nazioaren interpretazio ideologiko-politikotik jalkiko litzateke. Beste molde batez adierazita, G. Brousseauk[7] egoerak bezala definitu dituenekin bekoz beko aukituko ginateke; hots, alde batean, deskribatzaile huts ("egoera formulatzaileak") diren sistema sinbolokoekin, eta bere bestaldean, epaiketa eragile ("egoera baliotzaileak") diren sistema sinbolikoekin. Vygotskiri jarraituz haur beraren bilakaeran bi maila bereizi beharko genituzke: bere baitarik haurrak egin lezaken betebeharrarena eta adin helduko pertsonen gidaritzapean baizik egin ezinezko lukeen betebeharrarena. Bi maila hauen artean dagoen diferentzia Vygotskirentzat "bilakaeraren eskualde hurbila" kontzeptuak mugatzen du. Edozein betebehar lortzea ez da posible: egin behar den mugimendua nahitaez bilakaeraren eskualde hurbilean egon behar da. Argi dago bada, onartzen dugun gidaritza tipoa bilakaeraren eskualde hurbiletik dependentzian dagoela. Badago halaber haurrek sistema sinboliko bezala "eraiki" behar duten errealitate bizia, eta horren beste ertzean, eraikuntza propioaren

---

[7] G. Brouseeau, "Fondements et méthodes de la didactique des mathématiques", *Recherches en didactique des mathématiques*, Vol.7, nº2, 1986, 33-115 orr.

posibilitatez kanpo eta kultur produktu ideologizatu eta itxi bezala, zerbitzeko prest, alegia, hautematen dutena.

Ondorioz, esan dezakeguna da, Estatu nazioak landu duen nazioaren ideia bilakaeraren eskualde urrutiratuan aurkitzen dela, eta bere ulermena egin orduan bilakaera intelektual sendora errekurritzen dela, baina aldiz talde nazionaliatarioen ideia bilakaeraren eskualde hurbilean egokiturik dagoenez, hots, haurrentzat bereganatzeko erraza denez, ahalegin gutxirekin lor dezakeela. Ikerketa saio bakoitzean bada, zer nazio ideia den neurritzat hartzen duguna aurrez definitu beharko genuke. J. Piageten kasuan argi dago Estatu nazioa zela atzematen zuena. Honen frogatzat J. Piagetek aipatzen duena daukagu, hots, "aurkitu izan ditugun haurrak normalak ziren, baina sei-zazpi urte artekoek herri ideiaren ulermenerako nahitezko diren ezagutzen aurre datuak ez zituzten ezagutzen. Adibidez, zazpi urteko haur batek Paris Suitzan kokatzen zuen, zeren bertan ere frantsesa hitz egiten baitute, aldiz, Berna Suitzatik kanpo uzten zuen". J. Piagetek adierazi nahi duenaren aurka, adibidean, oso garbi dagoena zera da, delako haur horrek talde nazionalitarioaren ideia (kasuan bere dimentsio linguistikoa azpimarratzen da) ulertzen duela. Bere logikan Geneba eta Paris frantses talde nazionalitarioan kokatzeko arrazoiak leudeke, era berean Berna alemaniar talde nazionalitarioan sartzeko.

# ESTADIO KOGNITBO-AFEKTIBOEN TEORIA

J. Piagetek haurraren baitan aberriaren ideia eta atzerritarrarekin harremanak nola bilakatzen diren aztertzean, lehen estadioan haurra bere egoerari eta eginkizun propioei loturik daudenak bakarrik posibletzat kontsideratzen hasten dela adierazten digu, esan nahi baita ez dela gai osoaren eta partearen arteko harrema aurkitzeko, ondorioz unitateak bata bestearen alboan ezarriaz itxuratzera mugatzen dela. Honela haurrak arazorik ez du sendia, hiria, eta abar ulertzeko, aldiz, aberriaren ideia berarentzat abstrakzio bat besterik ez da oraingoz. Eta gauza bera esanen dugu eraikuntza afektiboari dagokionean: bi izaerak, kognitiboa zein afektiboa, nolabait adierazitzeko paralelo isomorfoak dira. Are oraino lehen estadioan, haurra ez da gai baloreari buruzko bere epaiketak egiteko, unean uneko interesen arabera jarduten du.

Bigarren estadioan, haurrak hastapeneko ikuspegi egozentrikotik so deszentrazioa obratzen du inguru giroaren eta bereziki sendi giroaren nozioei eta tradizioei menpekotasuna erakutsiz. J. Piagetek digunez deszentrazioa, haurrak egitatez eraikitako harremanetatik etor daiteke, parte batean, eta hori bada kasua, beharrezkoki nolabaiteko elkarkidetasunera bideratuko du. Baina deszentrazio hori etor daiteke, partez, ingurune sozialaren presioetatik: horrela bada, ez da partez automatikoki elkarkidetasun jarrera batean bilakatuko baina ego-

zentrismoa soziozentrismoan hainbat ulermen efektibotan aldatzea lor dezake. Bigarren estadioan ihardokitzeak errazki engaia dezazke aberriaren eta atzerritarraren aurkaritzara. Deszentrazioa bi posibiliateren artean kulunka izan baitaiteke: edo eta egozentrismoa, planu batean garaitua, gehiago edo gutxiago xotil den soziozentrismo forma pean birragertzen da, edo eta aitzitik egozentrismoari buruzko garaipenak elkarkidetasunean aurrerapena adieraz dezake.

Hirugarren estadioan, haurra, aldi berean, totalitateen egituraketa logikora eta totalitate zabalagoen afektibitate deskubrimendura ailega daiteke, azken hau talde nazionalaren izaera litzakelarik, eta hain zuzen hurbileko komunitateei kontrajarriko litzaieke zeinek sendiaren eta hiriaren artean kulunkatuko bailirateke. Hau guztia, berriz, mekanismo operatorio egoki baten ondorio den nozioaren erlatibotasunezko ulermena litzateke. Alta bada, erlatibitatea sortzen duten operazioak, hain zuzen, elkardidetasun sisteman gauzatzen baitira. Izpirituren alorreko jarrera sakon baten aitzinean egon gaitezke bada eta inolaz ere ez sinpleki galdera bati emandako erantzun logikoan.

Deskribapen honi buruz zer diogu? Gogoeta mota desberdinak posible direla.

Lehena guk eginikako kategoria nazionalitarioen bereizketari loturik dago. Honi ihardetsiaz, Vygotskirekin gogora dezagun alde batetik, bilakaera naturaleko lerroari asoziaturik prozesu psikologiko primarioak daudela. Hau litzateke memoriaren, arretaren, hautematearen eta pentsamenduaren kasua zeintzuk molde naturalean eta bitartekorik gabe esistitzen baitira. Bestalde, bilakaera soziokulturaleko lerroari asoziaturiko goi prozesu psikologikoak leudeke. Primarioetatik kualitatiboki desberdin diren prozesu psikologikoak dira. Beren izaeran nagusitzat ondoko ezaugarri hauek aipa dezazkegu.

a) Subjektuak nahierara kontrolatutakoa, egoerak kontrolatutakoari kontrajarria.

b) Izaera automatikoki kontzientea, inkontzienteari kontrajarria.

d) Sorburua eta funtzio soziala (komunikatiboa eta interpsikologikoa) naturalari (espeziearentzat moldagarria) kontrajarria.

e) Bitartekotzat adierazle konplexuen edo lanabes psikologikoen erabilera.

Taldego nazionalitarioa kategoria naturalari edo sinboliko-instrumental hurbilari legokiokenean, zeina sarrera bilakaera prozesutik esplika genezakeen, aldiz, Estatu nazioaren ideia, portaera sinboliko-instrumental urruneko izaki mekanismo soziokultural konplexuen bilakaeratik igaroko litzakela, hots, norbanakoak euretaz jabetzen direneko modalitateak edo autokontzientziaren eta besteenganako prozesuen formetan bezala mamietan murgiltzen direneko prozesu sozial konplexuengatik erreproduzitu, mantendu eta baimenduko litzatekela.

Propioki estadio kognitibo-afektibo deituei dagokienean, esan dezagun, identitate sozialaren teoriatik bezala mugimendu sozialenetatik edo gatazka sozialenetatik egindako hurbilketa modernoek J. Piageten eskema ez dutela ezeztatu, aberastu baizik.

Tajfel eta Turnerren identitate sozialaren eta auto-kategorizazioaren teoriek norberaren irudiaren osagai desberdinak molde harrigarrian sistematizatu dituzte, eta bereziki norbanakoa halako denez ikutzen dutenak, eta kolektibo batean bere mulgiltzeari dagozkionak. Tajfelek "Experiments in a vacuum" (1972) atalean ondoko gogeta hau idatzi izan du:

1. Uniformitate konportamental ez harremantzaileen ezagutza esentziala izanik ere, ez da aski portaera sozial gizatiarren esplikazio egoki bat emateko orduan. Esentziala da berau zeren berak baimentzen baitigu oinarrizko prozesuetan harremantze gizatiarrak nola aldatzen diren jakitea; hala ere, ez da aski zeren portaera sozialek dituzten izaera propioak ezin esplikatuzkoak baitira oinarrizko motibazio eta kognizioen arabera eta azken hauek ez lukete aurrez iragartzen jakinen.

2. Portaera soziala ezaugarritzen duten uniformitateek daitekena da norbanakoaren barne eta indibiduo arteko alorre-

tan berdin ez ezaugarritzea talde partaidetzagatik gidatutako portaera. Hau horrela gertatzen bada, norbanakoak bere identitateaz duen irudia kasu bietan egituralki desberdina delako da: talde alorrean, norbanakoa ez baita hautematen kasu singular bat bezala aitzitik kategoria bateko ale bezala.

3. Portaera soziala, ezin bestez, ingurune bateko norma eta baloreen influentzipean dago. Uniformitate desberdinak testuinguru desberdinean prozesu bera birprodukzi dezakete berezitasun kulturalengatik gorderik bada ere.

Taldearteko harremanez dauden interpretazio orokor eta indibidualisten eskasiaren onarpenak identitate sozialaren teoriaren bidez identitate soziala eta continuum interindibiduala eta intertaldea kontzeptuetara eramanen gaitu.

Alabaina, lehenik, norbera norbanako singular bezala eta norbera kategoria bateko kide bezala hautematearen berezketak esplika dezake indibidual eta taldetiar alorretan funtzionamendu psikologiko desberdinak ukaitea. Bigarrenik, norbanakoa taldeko kide bezala definitzen duen tesiak, hots, taldea “niaren” parte dela eta identitate soziala partikatuta bizi dugula dioenak, esplika dezake hautemate eta portaera kategorialak ezaugarritzen dituen homogeneitatea.

Portaera soziala, bada, partaidetza kategorialengatik determinatuta edo determinatu gabe gerta liteke. Kasu bietan, “forma” eta uniformitate desberdinak ageriko ditu. Desberdintasun hauek continuum indibiduoarteko eta taldartekoan barreneratuta daude. Indibiduo arteko poloan norbanakoen arteko harremanak edo beren ezaugarri pertsonalengatik berezitasun haundiagoz gidatutakoak jartzen dira. Intertalde poloan berriz pertenentzia kategorialengatik berezitasun haundiagoz influentziatutakoak jartzen dira. Bien arteko puntuek nola iratxikitze pertsonalez hala kategorialez moldatutako harreman usadiozkoenak birprodukzitzen dituzte.

Identitate sozialaren teoriatik, era berean, talde portaeren interpretazio orokor bat sortzen da. Turner eta bere lankideek proposaturiko norberaren kategorizazioaren teorian datza hau

guztia. Ondoko gisan defini dezazkegun hipotesi eta kontzeptuak daramazki: 1) Endotalde-exotalde dikotomien berezko eraikuntzaren baldintzak; 2) Testuinguru jakin batean, talde pertenentzia bat, norberaren hautematea termino pertsonaletatik kategorialetara eramanaz ohargarri egiten duten baldintzak. Identate sozialean inplizitoki ageri den hipotesia batek endotalde-exotalde kategorizazio bat ohargarri bilakatzen delarik, intrataldeko kohesioa eta kooperazioa bazala intertaldeko diskriminazioa eta konpetentzia haundituirik ikus lezazke.

Haurrak bere aberriaren deskubrimendu progresiboa egiten duen bitartean, baita bestea ezagutzera eta elkarkidetasun harremanak onartzera heltzen denean, J. Piagetek proposaturiko aldien esplikazioarentzako ondorio diferenteak jarraitzen dira identitate sozialaren teoriatik. Lehenik, identitatearen teoria hasten da esaten portaera soziala zerikusian dagoela partaidetza kategorialekiko. Bigarrenik, kategorizazio oro ohargarri bilakatzen da intrataldean kohesio eta kooperazio sortzaile denean, aldiz intertaldean diskriminazio eta konpetizio eragile dela. Hirugarrenik, kategorizazio sinpleagoak eta konplexuagoak eta ondorioetan pisutsuagoak direnak bereizi beharra dagoela. Kategorizazioaren baitan bi eginbehar maila aipatu behar dira. Norbanakoak (kasuan haurrak) bere baitara egin dezazkeenak eta beste norbait esperimentatuagoaren gidaritzapean egin beharrezko direnak. Estatu-nazioaren ereduaren araberako nazio kategorizazioaren ikasketa eginbehar zail bezala kontsideratu behar da. Baina, funtsean, haurrak kurritutako estadioen legea identitate teoriak norberaren kategorizazio orori dagozkionak bezala aipatutakoak definitzeko orduan proposatutako estadioen nozioarekin kidetasunean datza.

Identitate soziala teoriaren eratormen bat bezala Taylor eta McKirnanek (1984an) eta Taylor eta Moghaddamek (1987an) bost estadiotako bilakaera proposatu izan dute: 1) Lehena, taldearteko harreman gogorrak ezaugarritzen dute. Hemen eta orain, taldearteko botere harremanek endotaldearen barreneko pertsonarteko konparaketak bakarrik zilegiztatzen

dituzte eta horrelakoetan desfaboretutako talde kideek bere desabantaila sozialaren ardura beren buruen gain emateko joera dute. 2) Bigarren estadioan indibidualista taxukerako ideologia zutitzen da, horren arabera norbanako bakoitzaren estatu soziala gaitasun eta esfuertzu indibidualek determinatzen dute; era berean, taldeen arteko mugak iragazkor bezala hautematen dira. 3) Hirugarren estadioa mobilitate sozial aszendentearen estrategiagatik ezaugarritzen da, zeina norbanako dohaitsuenek hautatzen baitute identitate sozial atseginga-rria lortzeko. 4) Laugarren estadioan talde desfaboretuko kideek identitate sozialaren teoriak definitutako sorkuntza sozialaren estrategiak erabiltzen dituzte. 5) Bosgarren estadioan taldeen arteko konpetizioa hautematen da horietariko batek besteekiko garaipena lortu arte.

Honek guztiak mugimendu sozialen eskemara garamatza. Alain Tourainek gizartea akzio sistema bat bezala deskribatzen duenean, hots, orientazio kultural eta harreman sozialengatik definitutako aktoreek egina, norbanakoen eta gizartearen artean kobariantza eta paralelismoa aitortzen ari da. Baina zenbaterainokoan dago paralelismorik J. Piagetek (teknikak, pentsamendu zientifikoa eta ideologia soziozentrikoak pentsamendu kolektiboaren agerraldi garrantzitsuenaz kontsideratuz, eta hiru forma bakungaitz horien presentzia azpimarratuz, sozializazioaren prozesu heteregoneon lekuko hartzen dituelarik, hots, norbanako egitateen eta talde koordinazioaren artean harreman diferenteen adierazle)[8] eta A.Tourainek (mugimendu soziala klase aktorearen portaera kolektibo antolatu bezala kolektibitate jakin baten historizitatearen zuzendaritza soziala lortzeko eta klase arerioaren aurka borrokatzeko definitzen du). Eta beti azpimarratuz orientazio kulturala eta gatazka soziala ez direla elkarrengandik bereizi behar; antzinateko gizarteetan

---

[8] J. Piaget, "Pensée égocentrique et pensée sociocentrique", *Etudes sociologiques*, op.cit. 321 orr.

posible izan ez dena. Ordena sozialaren eta metasozialaren arteko bereizketak gatazka sortu izan baitu, bizitza sozialaren eta alor kulturalaren barrenean egokituz eta haien tokia hartuz. Praktikak gatazkatsu kontsideratzen zirenean, aldiz baloreak eta joerak ez ziren halakotzat hartzen. Eta praktika eta ordena metasozialaren artean, gatazka eta norabidea bereiziz, kontradikzioa zegoen, horrela aitortu edo hutsa bezala ekarri)[9]. Mugimendu sozialarekin gatazkatsu deituko genukeen sozializazio motan gaude: "mugimendu sozialak sozialki gatazkatsu diren porteara bezala definituko nituzke, baina baita kulturalki orientatutako bezala ere eta inolaz ere ez manupe sistemaren kontradikzio objektiboen agerpen bezala"[10]. Berez doa bada, mugimendu sozialean antolamendu gisa hiru termino egotea (eta kontradikzio eskeman gertatzen denez bitara ez murriztea): honela bada identitate printzipioa, oposaketarena eta totalitatearena (edo elkarkidetasunarena) aipatuko dira. "Borrokatzeko ez al da bada jakin behar zergatik, noren aurka eta zein lurretan borrokatzen garen? Ideia sinple hauetara eskema egokiturik portaera sozial guztietara aplikatzen ahal da, zeren guztiek aktorea harremanean kokatzen baitute eta alor sozial gabe ez dago harremanik"[11]. Eta honela ondoriotzen du A. Tourainek:" Mugiemendu sozial bat ezin da behin ere printzipio edo xede batekin definitu. Hiru atal horiekin osotutako oro aldakor, inoiz erabat koherente ez dena, eta ia beti akzio kolektiboen beste molde batzuei nahastua dagoena bezala baizik"[12]. Sozializazio indibidualaren prozesuen eskema piagetiarra makrosozializazioren prozesuetan indarretsia gertatzen da ezpairik gabe.

1963an N.Smelserrek "Theory of Collective Behavior" argitara eman zuelarik, portaera kolektiboaren formakeran

---

[9] A. Touraine, *La voix et le regard*, Seuil, Paris, 1978, 104-105 orr.

[10] Ibid.,107 orr.

[11] Ibid., 109 orr.

[12] Ibid., 112 orr.

parte hartzen duten sei baldintza aipatu zituen: 1) Joera egiturala. Oihal sozialaren antolamenduak portaera kolektiboaren gertakizuna errazten du. 2) Tentsio egiturala. Gatazkak norma erreal eta idealen arteko kontradikzioengatik ematen dira, hots, xedeak lortzeko dauden bitarteko instituzionalen eskasiagatik. 3) Sinismen hedatua. Norbanakoek arazoa identifikatu egin behar dute, horretaz sinismen hedatua bilakaerazi eta finean, erantzun egokiak emanaz. 4) Faktore lasterkatzailea. Portaera kolektiboa martxan jarriaraziko duen gertaera edo jendeen erran bat beharko da. Nahitaez ez da adierazgarria izan behar. 5) Akziorako formazio deia. Norbanakoak akzioa aurrera ateratzeko elkartu behar dira. Akzioa egituratua edo bat-batekoa izan daiteke. Liderrak ez dira baitezpadakoak. 6) Kontrol sozialaren indargabezia. Kontrol sozialak dauzkan mekanismoengatik eraginak daude akzioaren iraupena eta norabidea. Baldin eta mekanismoak falta badira edo ahulegiak edo narriotsuak badira, portaera kolektiboak bere norabidea jarraituko du.

Berrikiago taldearteko gatazkaren agerpenerako baldintza garrantzitsu bezala ezin elgartuzko interesen esistentzia azpimarratzen da. Egitura inklusiboaren erraietan taldeen arteko interdependentziaren izaera simetrikoa ala asimetriko izan ezik[13] bere identitateen definizioa eta identitate horien arteko harremanak eta antolamendua bera ere errekurtsoen partiketaren arabera gertatuko omen lirateke. Eta talde sozialen arteko errekurtsoen partiketaren arazo sinbolikoa parte haundi batean justizia indibidualaren eta kolektiboaren arteko adostu ezinetik omen letorke[14].

---

[13] J.M.Rabbie, J.C. Schot & L. Visser, "Social identity theory: A conceptual and empirical critique from the perspective of a behavioural interaction model", *European Journal of Social Psychology*, 19, 171-202 orr.

[14] Iturria, Langile Aurrezki Kutxaren *Economia Vasca. Informe de 1993* da. Xifra hauek aurki daitezke ere *EGIN Urtekaria*-n, 1995, 176 orr.

# Inkesta Piagetiarraren aplikazioa eta emaitzak

Iadanik aipatua dugunez J. Piagetek, 1951n, Anne-Marie Weilen laguntzarekin, Geneban, berrehundik gora haur, lau-bost urtetik hamalau-hamabost artekoak, galdezkatu zituen aberria ideiaren formakera intelektuala eta afektiboa nola bilakatzen zen jakiteko; baita ere eurena ez den herrien ulermena nola egiten zuten ikasteko; eta finean, elkarrekikotasun intelektuala eta afektiboa nola garatzen ziren ezagutzeko.

Geroztik dakigunez, norberaren aberriaren deskubrimendua bezala bestearenaren ulermena haurrarengan egozentrismotik igaroaz elkarrekikotasun harremanak sortuko dituen prozesura bideratzen da. Hiru estadiotan deskribatzen den prozesua da. Hala ere, gradualki egiten den elaborazio hori etengabe desbideratzeko arriskupean dager, bilakaera horren maila berri bakoitzean edo gatazka berri bakoitzaren funtzioan ematen den eskema orokorra forma hedatuagoetan edo soziozentrikoetan gauzatzekoan egozentrismoaren birragerpena gerta daitekelarik.

Geneban gauzatutako galdeketa bertan bizi ziren haur suitzar eta atzerritarren artean, inolako bereizketa gabe burutu zen. Horrekin esan nahi da aipatu nozio horien bilakaeran sendiak, larrien inguruneak, eskola ereduak edo gidaritza pedagogikoak ez zirela aintzakotzat hartu. Guk, 1995eko Hego Eus-

kal Herrian galdeketa bera aplikatzean J. Piageten hipotesia konprobatu nahi izan dugu, baina aldi berean, areago joanaz eta Vitgotskyren metodo instrumentalean oinarrituz haur beraren bilakaeran bi maila desberdin bereiztu ditugu: haurrak bere baitarik bete ditzakeen eginbeharrak, eta larriaren gidaritzapean bakarrik bete ditzakeenak, alegia. Orduan garrantzirik haundienekoa da larriek zer eta nola erakusten dioten jakitea. Larrien erakusketak bi edo hiru gune pribilejiatutatik egiten dira gure mundu sisteman: sendiatik, hezkuntza sistematik eta gizarte ingurunetik (honen barrenean geroz eta garrantzi haundiago hartzen du mass-medien eraginak).

Egungo Euskal Herrian hezkuntza sistemak bizi duen gatazkan nola sendia hala ingurunea esplizituki eta zuzenean inplikaturik daudela jakinik, hezkuntza sisteman dagoen eredu diferentziaketa haurraren nazio formazioaren bilakaera jarraitzeko erreferentziatzat hartzea egoki dela kontsideratu dugu. Horrela bada, J. Piageten anbizioa areagotu egin dugu Vigotskyren aportazioen argira gure Hego Euskal Herrian lehenaren galdeketa aplikatzekoan. Hori nola egin izan dugun?

Euskal Herriak bizi duen nazio gatazkak ikastolen mugimendu sozialaren eraginez hezkuntza sistema hiru eredutan bereiztera eraman zuen. Nahiz eta hezkuntza eredu hauek hizkuntza mailako diferentzia soiltzat eman, formazio sozial zabalago baten adierazpen direla da bada gure iritzia. Hori neurtzeko aproposa izan daiteke J. Piageten galdeketaren aplikazio hau. Hala ere, urraska ibiltzeko esan dezagun nola definiturik dauden hiru eredu horiek. A eredua dugu lehenik: bertan irakasketa oro erderaz da, nahiz eta euskara ikasteko kurtso bat egiten den. B eredua daukagu bigarrenik: erakaskuntza erdibiturik dago euskararen eta erderaren artean. D eredua daukagu azkenik: irakaskuntza euskara hutsean du, baina gaztelera ikasteko kurtso bat bada. Finean, X erudua daukagu: aitzineko egoeraren hondakin izanik urtez urte desagertzen doa Nafarroan izan ezik. Bertan euskarak ez du inolako tokirik. Zer pisu du honek guztiak gaur egun?

Azken hamarkadan egon den aldaketaren berri emango dugu honen lekuko. 1985-86 eskola urtean Gipuzkoako ikasleen %ko 24,3 ikastolan edo D ereduan zeuden. Bizkaian %ko 7,7. Araban %ko 5,7. Eta Nafarroan (1988-89an) %ko 9,4.

1993-94 eskola urtean hiru eredu hauek (guk azterketan erabiliko ditugun haurren adinagatik O.H.O.ko zifrak soilik emango ditugu) honela partikaturik zeuden:

D eredua:

Gipuzkoan ikasleen %ko 45,4 zebilen, Bizkaian %ko 22,6. Araban %ko 13,0. Eta Nafarroan %ko 16,8.

B eredua:

Gipuzoan %ko 37,5 zebilen, Bizkaian %ko 21,4, Araban %ko 23,2, eta Nafarroan %ko 0,4.

A eredua:

Gipuzkoan %ko 16,8 zebilen, Bizkaian %ko 54,8, Araban %ko 63,4, eta Nafarroan %ko 9,3.

X eredua:

Gipuzkoan %ko 0,3 zebilen, Bizkaian %ko 1,2, Araban %ko 0,4, eta Nafarroan %ko 73,5 (15)

Geroztiko urteetan euskararen ereduek jendearen faboreak irabazi besterik ez dituzte egin.

Honela bada, transmisio orduan hiru gidaritza pedagogiko dauzkagu. Bakoitzak nazio interpretazio bat isladatuko duela pentsatzea zilegi da. Hori haurren hautematean aurkituko ote dugu? Jakiten entseiatuko gara.

Gure galdeketa J. Piaget prestatu eta pasatutako berbera izango da. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako mila haurretik gora izan da erantzuten. Guk, orain eta hemen, hezkuntza sistemako hiru ereduekin eta lau herrialdekin jokatuz aukera bat desglosatuko dugu. Desglosaketa orduan hautatutako lekukotasunen araberako aipamen kuantitatiboak seinalatuko ditugu, baina, batez ere deskribaketa kualitatibo esanguratsuak egitera mugatuko gara.

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Xabier,6 urte).

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Bai.
Non kokatzen dira?
—Hemen inguruan.
Zer daude hemendik gertu ala urrun?
—Gertu.
Zer da Euskal Herria?
—Gu gauden tokia.
Non kokatzen da?
—Hemen.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Hiru borobil bereiztuta marrazten ditu. Horietariko bakoitzari erlazioko hiru ataletariko baten izena ematen dio. Tamainaz antzeko borobilak dira.

2. (Estibalitz, 7 urte).

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Bai.

Non kokatzen dira?

—Hemen daude.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Gertu.

Zer da Euskal Herria?

—Telebistan erakusten dutena.

Non kokatzen da?

—Hemen inguruan guztia.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Borobil haundi baten barrenean beste bi boril geroz eta txikiagoak egiten ditu. Borobil haundiena, Frantzia izendatzen du. Bigarren haundiena, Espainia. Eta Hirugarrena eta txikiena, Euskal Herria.

3. (Leire, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Bai.

Non kokatzen dira?

—Ez dakit.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Nire herritik urrutiago.

Zer da Euskal Herria?

—Gasteiz.

Non kokatzen da?

—Hemen.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Berriz ere hiru borobil egiten dira. Hala ere, oraingoan, bi borobil haundi bereiztuak marrazten dira nahiz elkar ikutzen ageri, eta tamaina berekoak izan. Bata, Frantzia deitzen du eta bestea Espainia. Eta hirugarren borobila Euskal Herria

deitua, Espainia deitu borobilaren barrenean kokaturik dagoen borbil txiki bat da.

### *1.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Mikeldi, 6 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Bai, eskolan.
Non kokatzen dira?
—Ez dakit.
Zer daude hemendik gertu ala urrun?
—Urrun, biak urrun daude.
Zer da Euskal Herria?
—Ez dakit.
Eta Pais Vasco? (pentsatuz hizkuntza ulermen kontua ote den egiten da galdera. Eta ondoko erantzuna ematen da)
—Herrialde batzuk dira.
Non kokatzen da?
—Ez dakit.
Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?
—Hiru aldiz etxe bikoteak marrazten dira. Bat haundia eta bestea txikia dira lehen bikotean. Bat txikia da. Bestea haundia da (aski etxe zabalak dira bigarren bikotekoak). Eta bat laburra eta melarra eta bestea luzea eta melarra dira hirugarren bikotean.

5.(Amaia, 8 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Ez.
Inoiz ere ez?
—Ez, ez dakit ezer.
Non kokotzan dira?
—Iparraldean uste dut.
Zer daude hemendik gertu ala urrun?
—Oso urrun.

Zer da Euskal Herria?

—Aberria.

Non kokatzen da?

—Iberiar penintsularen iparraldean.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapak diruditen marrazkien jokuaz dager. Lehenak Espainiaren itxura luke. Hala ere, Ekialdetik sartuz hura baino haundiago den beste mapa batek zati bat harrapatzen dio. Eta bigarren honen barrenean, ipar-ekialdean mapa txikiago bat ematen da. Azken hau ote da Euskal Herria? Ez dakigu ez baitira izendatzen. Baina, lehen mapak Penintsularen antza duenean, bigarrenak Afrikarena du eta honen barrenekoa litzateke Euskal Herriaren kokapena. Bitxia da irudiketa, noski.

6. (Laura, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Ez, ez dut ezer entzun.

Zer dira jostailuak?

—Ez, lekuak dira.

Non kokatzen dira?

—Ez dakit.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Urrun.

Zer da Euskal Herria?

—Euskaraz hitz egitea.

Non kokatzen da?

—Hemen.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Espainia borobil baten barrenean doan txalupa bat litzateke. Borobiletik kanpo dauden lau kalatxorik hegaz jarraituko luteke. Frantzia berriz, neskato kozkor bat hesi baten aurrean zutik emana.

Euskal Herria, azkenik, Bermeoko kaia, etxe eta kanpai, aurrean itsas-untzi bat ur gainean eta bere azpian arrainak dituela litzateke.

### *1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Josune, 6 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Bai, badakit zer diren Espainia eta Frantzia.

Non kokatzen dira gertu ala urrun?

—Frantzia Paris ondoan eta Espainia urruti baina hemendik gertuago.

Zer da Euskal Herria?

—Hiri bat.

Non kokatzen da?

—Gipuzkoa eta Espainiaren ondoan.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Borobil bakar baten barrean hiru izenak agertzen dira. Idaztekoan goitik behera ordena hau jarraitzen da: Frantzia, Espainia, Euskal Herria. Beheragо beste borobil bat marrazten du. Bertan bi deitura agertzen dira: goitik behera dio, Moroak, Euskal Herria.

8. (Alain, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Gutxitan. Parisen egon naiz.

Non kokatzen dira?

—Frantzia Parisen eta Espainia Euskal Herrian.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Frantzia urruti eta Espainia hemen.

Zer da Euskal Herria?

—Herri bat.

Non kokatzen da?

—Espainian.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Lehen borobil bakar baten barrenean hiru deitura idazten ditu ondoko ordena honetan: España, Euskal Herria, Farzia (sic). Ondoan beste borobil bat marraztu digu. Bere barrenean bi deitura ageri dira: Koreia,Tutera.

9. (Markel, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Ez, piska bat bakarrik.
Non kokatzen dira gertu ala urrun?
—Frantzia piska bat gertu, eta Espainia, bertan gaude.
Zer da Euskal Herria?
—Euskal Herria hau da. Herri batzuen zati bat.
Non kokatzen da?
—Eibarren, hemen, Tolosan.
Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Lehenik borobil bat egiten du. Bere barrenean bi izen ematen ditu: Frantxia (sic), Espainia. Alboan eta jarraian beste luze itxi bat marrazten du. Bertan bi izen goitik behera emanak ageri dira: Olanda (sic), Euskal Herria.

### *1.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Endika, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Ez, ez dut ezer entzun.
Non kokatzen dira?
—Ez dakit.
Zer daude hemendik gertu ala urrun?
—Hemendik gertu daude.
Zer da Euskal Herria?
—Ez dakit.
Non kokatzen da?
—Ez dakit.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Hiru borobil tamaina bereko marrazten ditu: bata Frantzia, bestea Españia eta azkena Euskal Herria lirateke.

—Ez dakit. (Guk, ordea, baietz diogu jakin behar duela. Berak berriz ere:) Ezetz!

11. (Amaia, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Ez, ez dut ezer entzun.

Non kokatzen dira?

—Ez dakit.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Hemendik urrun kokatzen dira.

Zer da Euskal Herria?

—Probintzia bat.

Non kokatzen da?

—Ez dakit.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Ez dakit.

12. (Iñigo, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?

—Bai, zerbait entzun dut.

Non kokatzen dira?

—Ez dakit.

Zer daude hemendik gertu ala urrun?

—Hemendik gertu aurkitzen dira.

Zer da Euskal Herria?

—Leku bat.

Non kokatzen da?

—Hemen.

Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Ez dakit. (Ez du saiatu nahi ere).

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

J. Piagetek bere lanean adierazten duenez guk elkarrizketa hauetan aurkitu ditugun haurrak zeharo normalak dira. Adin bereko edozein haurrek, salbuespenak salbuespen, ez dituzte ideia hauek garbiago. Oro har, erdiak dira Espainia eta Frantziaren entzutea aitortzen dutenak. Hori horrela denean ere, zer ulertzen duten besterik da. Adibidez Amaiak (8 urte), "iparraldean uste du" kokatzen direla. Zer esan nahi duen? Josunek (6 urte),"Frantzia Paris ondoan eta Espainia urruti baina hemendik gertuago", aipatzen ditu. Laurak (7 urte) jostailuak diren galdetzen diogunean,"lekuak direla", erantzuten digu. Ikus daitekeenez dena zehazgabetasunaz beterik dager.

Euskal Herria bera ere ez dute aski gehiago ulertzen. Probintziak, komunitateak, nazioak edo estatuak bezalako kontzeptuak ez dira aipatu ere egiten. Eta noizbait agertzen bada, inolako koherentzia gabe, sistematizazio gabe. Euskal Herriaz adierazpen hauek dira nagusi: "gu gauden tokia"; "telebistan erakusten dutena"; "Gasteiz"; "herrialde batzuk dira"; "aberria"; "euskaraz hitz egitea"; "hiri bat"; "herri bat"; "probintzia bat". Non kokatzen den galde egitean, bi haurrek "statu quo ofiziala" errepikatzen dute: "Espainian" dio batak, eta "Iberiar penintsularen iparraldean" dio besteak.

Aztertzen ari garen sail hau bereziki ikastolen ereduaz osaturik dagoela kontutan hartzen badugu, euskal abertzaletasunaren adierazpenekin bat doazen esaldiak aurkitzea ere espero genezakeen. Baina, 7 urte arteko adin honetan ez dago, kontzeptu horien ezagutza edo transmisio bereizi haundiegirik. Hala ere, hor irten dira Euskal Herria definitzekoan, aberria, euskaraz hitz egitea eta herri bat aipaldiak, besteak beste. J. Piagetek bere gogoetetan azpimarratzen ez zuen gidaritza pedagogiko desberdinen presentzia, gatazkaturik bizi den Euskal Herrian nabarmentzeko bidean gaude.

Egindako marrazkietan fijatzen bagara, ez gara urrutirago ailegatzen daukaten ulermen adierazpenagatik. Borobil, lau-

kiak eta etxeak dira nagusi aberri ideia horiek adieraztekoan. Gehienean, bereiztuta marrazten dira. Gutxi batzutan, bata bestearen barrenean. Baina azken kasuan ere, ez dago zatikia osoarekin harremandurik ulertzen dela agertzen duen seinalerik

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Xabier, 6 urte)

   Zein herrialde duzu gustoko?
   —Denak.
   Zergatik?
   —Bidaiatzen dudalako.

2. (Estibalitz, 7 urte)

   Zein herrialde duzu gustoko?
   —Frantzia.
   Zergatik?
   —Nire lengusuak han bizi direlako.

3. (Leire, 7 urte)

   Zein herrialde duzu gustoko?
   —Euro-disney.
   Zergatik?
   —Eguberrietan joan nintzelako eta oso dibertitua delako.

### *2.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Mikeldi, 6 urte)

   Zein herrialde duzu gustoko?
   —Ba hau.
   Zein da hau?
   —Bermeo.

Zergatik?
—Hemen ez dagoelako lurrikararik.

5. (Amaia, 8 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Egipto.
Zergatik?
—Bere garrantziagatik.

6. (Laura, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Sevilla.
Zergatik?
—Beroa egiten duelako eta polita delako.

### *2.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Josune, 6 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Espainian ez naiz egon, eta Frantzian gutxi. Amerika gustatzen zait.
Zergatik?
—"Los vigilantes de la playa" daudelako.

8. (Alain, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Bartzelona. Haundia eta polita delako.
—Holanda eta Bilbo ere bai. Holanda, bertan Ronald Koeman bizi delako eta Amerikan dago. Eta Bilbo, bertan Klemente bizi delako eta Bizkaian dago.

9. (Markel, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Korella. Oporretan joaten naiz eta oso ondo pasatzen dudalako.

—Tutera ere. Oso polita da. Korellatik urruti dago, Euskal Herrian.

### *2.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Endika, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Mexiko gustatzen zait.
Zergatik?
—Nire lengusina han bizi delako.

11. (Amaia, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Euskal Herria.
Zergatik?
—Familia, lagunak hemen daudelako.

12. (Iñigo, 7 urte)

Zein herrialde duzu gustoko?
—Italia gustatzen zait.
Zergatik?
—Oporretan egon nintzen eta asko gustatu zitzaidan, oso polita delako.

### *Adin sailari buruzko gogeta*

Inpresio subjektibo eta indibidualak dira nagusi. Ez dute sentimentuen kontrolik, ordenarik. Uneko eta akzidentezko inpresioak uholdetzen dituzte beren gustoak adierazteko orduan. Oporrak, jolasak, kirolak, bidaiak, klimak, telebistak, eta familiak agintzen dute beren gustoetan. Beren inguru subjektibo eta indibidualetik kanpoko beren eguneroko errealitate kolektiboek duten izaera eta garrantzia ezagutzeko ahalbiderik gabe ageri dira oraino. Bertakotik urrunago eta amets hobeagoak direla dirudi. Afektibo alorrean aberri jakinaren ideiarik ez da

nabari nahiz eta gidaritza pedagogiko jakin honetan gaudela kontutan izanaz so egin.

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Marisol, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—No sé.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—No conozco.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé, yo conozco San Sebastián y Burgos.

¿Dónde se sitúa?

—No sé.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Erantzuna marrazki luze eta zabal baten bidez agertzen digu. Lehen lerroan, goitik behera irakurriaz, ezkerrean, Barcelona deitzen duen etxe bat ageri da. Maila berean, baina, es-

kubian, beste etxetxo bat agertzen da Cuenca izenez. Bigarren lerro batean, lauki bat dager, bere barrenean borobil bat duelarik. Borobila berriz, bat, bi, hiru, lau, bost eta sei zenbakiekin betea dago. Osotasun hori Burgos litzateke. Maila berean, eskubian, etxe haundi bat lehioz beterik San Sebastian deitzen du. Hirugarren lerro batean, bi dorre luze ageri dira eta osotasuna Vitoria izendatzen du.

2. (Mabel, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No... bueno mi amigo me dijo que fue a Francia el otro día.

¿Dónde se sitúan?

—Francia está cerca de Vitoria... España no.

¿Qué es el País Vasco?

—Vitoria.

¿Dónde se sitúa?

—No sé.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Horri zuri bat osorik marrazkitzen du. Parte haundiena lauki errektangular bat da. Barrena, lauki txikiz beteta du. Espainia deitzen du. Bereizirik beste bi lauki ageri dira, ezkerrean, txikiena Frantzia deitzen du. Eta eskubian, haundixagoa, País Vasco-Vitoria deitzen du.

3. (María, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—Si.

¿Dónde se sitúan?

—Francia encima de España.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—Un poquito lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—Como una provincia.

¿Dónde se sitúa?

—En el norte.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Hiru borobilekin agertzen du. Gainekoa, Frantzia omen da. Azpian, hura ikutuaz, Espania dager. Eta azken honen barrenean beste borobil txikiago batean País Vasco kokatzen du.

### *1.2. Bizkaia, (B eredua, ikastetxe pribatua, Zornotza)*

4. (Jon Ander, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—No sé.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—No sé.

¿Qué es el País Vasco?

—Vizcaya.

¿Dónde se sitúa?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—(Oso urduri jartzen da). No sé. (Ez du ahalegintzeko gogorik)

5. (Alba, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—No sé.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—Lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé.

¿Dónde se sitúa?

—No sé.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—No sé. (Ez du nahi).

6. (Iraia, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—Creo que lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé. (Baina, entzungo zenuen bada berataz hitzegiten diogunean, baietz dio)

¿Dónde se sitúa?

—Más cerca que lo anterior (España).

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—No. (Hala ere, saitzeko eskatzen diogunean boligrafoa eskuan hartu eta lanean jarriko balitzen imintzioa egiten du. Baina, geroxago ezin duela eta boligrafoa mahai gainera botatzen du).

### *1.3. Gipuzkoa, (B eredua, ikastetxe pribatua, Donostia)*

7. (Jon, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—No sé.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—Cerca.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé.

¿Dónde se sitúa?

—Aquí.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Bi borobil bereizi marrazten ditu. Goikoan ez du ezer idazten. Huts hutsik ageri da. Behekoan, “paísvaco”(sic) idazten du.

8. (Aitor, 7 urte)

¿Has oido hablar del País Vasco?
—No.
¿Dónde se sitúa?
—No sé.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—No sé.
¿Qué es el País Vasco?
—España.
¿Dónde se sitúa?
—No sé.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?
—Boboril haundi bat egiten du. Oin baten gainean dagoela dirudi. Barrenean berriz sei mingain erdigunera so daude. Baita hari batzuen bidez horietariko zenbaitek euren artean lotura daukate.

9. (Carmina, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—No.
¿Dónde se sitúan?
—En el mundo.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Cerca.
¿Qué es el País Vasco?
—España.
¿Dónde se sitúa?
—En el mundo.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?
—Bi borobil irregularrez agertzen du. Ez ditu izendatzen.

### *1.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Eduardo, 6 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—No.
¿Dónde se sitúan?
—No sé.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Lejos.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa?
—Aquí.
¿Me pueder representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?
—No. (Alboan duen beste haur bat irriz hasten zaio. Konturatzean berari irri egiten diola, ondoko hau esaten dio): ¡Ni tú!

11. (Iñigo, 7 urte)

Entzun al duzu Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten?
—Bai.
Non kokatzen dira?
—Ez, hori ez dakit.
Zer daude hemendik gertu ala urrun?
—Urrun.
Zer da Euskal Herria?
—Ba dakit bai.
Non kokatzen da?
—Ez dakit.
Aurkeztuko al duzu marrazki baten bitartez Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?
—Marrazkian dorre bat leihoz beteta eta etxe txipi bakar bat bata bestearen alboan agertzen ditu.

12. (Leire, 7 urte, Palencian sortua da)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—No

¿Dónde se sitúan?
—No sé.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Lejos.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa?
—No sé.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—¿Una casa? dio. Eta jarraian etxe bat irudikatzen du. Bi sarrera, leihoak eta bi tximini ditu.

## *Adin sailari buruzko gogoeta*

Hamabi haurretatik bederatzik Espainia eta Frantziari buruz ez dutela berririk digute. Hala ere xurgatzen hasten garelarik beren mundutxoan zenbait gauza dagoela erakasten digute. Adibidez, Mabelek (7 urte) dio," Francia está cerca de Vitoria... España no". Mariak (7 urte), ezagutzen dituela esanaz gero, non kokatzen diren galdetzen diogularik zera dio: "Francia encima de España". Maparen irudia hor nonbait du bere buruan.

Euskal Herriaren ezagutza ez dute askoz zehatzagoa. Bestela zenbait aipamen gogoratu besterik ez dago. Mabelek (7 urte) zer den Euskal Herria galderari hau erantzuten dio: "Vitoria". Mariak (7 urte) aldiz: "Como una provincia". Bizkaian bik eta Gipuzkoan batek, Euskal Herria, "España" dela diote.

Marrazki lanak ez digu areagoko ezagutza dutenik agertzen. Adibidez, Marisolek (6 urte) Euskal Herria, Espainia eta Frantzia erlazionatzeko eskatu diogularik: Barcelona, Cuenca, Burgos, San Sebastián eta Vitoria horri berean marraztuz izendatu dizkigu.

Oro har esan dezakegu, hala ere, B ereduaren gidaritza pedagogikoa abertzaletasun irudietatik urrunago ageri dela. Galdeketari erantzuteko libroki hautatutako hizkuntzatik hasi

eta gai erantzunetan emandako erantzunak barne ia betik erdaldunagoak agertu zaizkigu.

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Marisol, 6 urte)

¿Qué país te gusta?
—América.
¿Por qué?
—Porque tiene muchas diversiones, muchas tiendas y piscinas y se ven los barcos.

2. (Mabel, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—¿En Francia hay playa? galdetzen du. Bai diogu. Orduan hau dio: ... pues Francia. También he estado en Alicante, en la playa... mi primo tiene un chalet.
¿Por qué te gusta?
—Porque tiene playa.

3. (Maria, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia y País Vasco.
¿Por qué?
—Porque es como una bota.

### *2.2. Bizkaia, (B eredua, ikastetxe pribatua, Zornotza)*

4. (Jon Ander, 6 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque si, porque es bonito.

5. (Alba, 6 urte)

¿Qué país te gusta?
—Ninguno.
¿Por qué?
—No sé.

6. (Iraia, 6 urte)

¿Qué país te gusta?
—Francia.
¿Por qué?
—Porque están mis primas, para jugar con ellas.

### *2.3. Gipuzkoa, (B eredua, ikastetxe pribatua, Donostia)*

7. (Jon, 6 urte)

¿Qué país te gusta?
—El vasco.
¿Por qué?
—No sé.

8. (Aitor, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Heurodisnei (sic) idatzi du).
¿Por qué?
—Porque me gusta.

9. (Carmina, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Eurodisne (sic) idatzi du).
¿Por qué?
—Porque juegas. Es más grande.

### *2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Eduardo, 6 urte)

¿Qué país te gusta?

—Francia.
¿Por qué?
—Yo que sé.

11. (Iñigo, 7 urte)

¿Zein herrialde duzu gustoko?
—Paris.
Zergatik?
—Mickey daukelako.

12. (Leire, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—San Miguel.
¿Por qué?
—Porque tengo primos.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

Momentuko interesen arabera hautatzen jarraitzen dute. Ez dago inolako balore epaiketa finkorik. Galdeketa hau erantzuteko halabeharrez hautatutako hamabi subjektutatik seik, Frantzia aipatu digute. Zergatik? Aisarekin, festarekin eta amets gozoekin lotzen dutelako. Mabelek dio: "¿en Francia hay playa?. Bai diogu. Pues me gusta Francia". Aitorrek eta Carminak: "Eurodisney" dagoelako. Inigok: "Mickey" han dagoelako. Jonek eta Leirek Euskal Herria gustoko dute. Baina, ez dute gusto hori justifikatzeko arrazoirik. Beste batek, Espainia, "porque es bonito". Mariak Euskal Herria eta Italia. Baina arrazoitzekoan bigarrena aipatzen du: "porque es como una bota". Marisolek Amerika: "porque tiene muchas diversiones, muchas tiendas y piscinas y se ven los barcos".

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 6-9 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa.

### *1.1. Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Juan, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—España si, Francia no.
¿Dónde se sitúan?
—No sé.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Lejos.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa?
—No sé.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Ezkerrean irregulartasunak dituen borobilaren antzeko bat marrazten du. Goi partean, eskubian, borobilaren barrenean

beste borobiltxo txikiago bat ematen du dena lapitzez marraztua. Borobil antzeko nagusiaren erdian "España" idazten du.

2. (Miguel, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—Si.

¿Dónde se sitúan?

—En Europa.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—España aquí, Francia lejos.

¿Qué es el país Vasco?

—Guipuzcoa.

¿Dónde se sitúa?

—En Vitoria.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Borobil irregular bat egiten du. Bi erditan zatiturik dago. Goi partea "bitoria"(sic) deitu du. Behe partea berriz "Italia". Bi erdietako gaineatiko guneak lapitzez marraztuta daude.

3. (Paula, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No.

¿Dónde se sitúan?

—No sé.

¿Están cerca o lejos de aquí?

—Lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé.

¿Dónde se sitúa?

—No sé.

¿Me pueder representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia.

—Borobil irregular haundi xamarra marrazten du. Barrenean, etxe antzeko bat nabarmentzen da hainbat marraren artean.

### *1.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo)*

4. (Ana, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—De España, si
¿Dónde se sitúan?
—No lo sé
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Lejos.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa?
—No sé.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del país Vasco con España-Francia?
—No sé. (Erregutzean "No" ihardesten du).

5. (Luis, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia.
—No.
¿Dónde se sitúan?
—Muy lejos.
¿Qué es el País Vasco?
—Baracaldo.
¿Dónde se sitúa?
—Muy lejos de Bilbao.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?
—No sé. (Ez dago zereginik)

6. (Begoña, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—España.
¿Dónde se sitúan?
—No sé.
¿Están cerca o lejos de aquí?

—Lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—Baracaldo.

¿Dónde se sitúa?

—No sé.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—No sé.

### *1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Silvia, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia.

—No.

¿Dónde se sitúan?

—Cerca.

¿Qué es el País Vasco?

—Una ciudad.

¿Dónde se sitúa?

—Aquí.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Lurrean tinkatutako makila baten puntan hiru zatiguneko ikurrina bat marrazten du. Hiru zati horiek, hala ere, ez dute kolorerik ez izenik.

8. (Tati, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—Si.

¿Dónde se sitúan?

—No están muy cerca.

¿Qué es el País Vasco?

—Una ciudad.

¿Dónde se sitúa?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con españa-Francia?

—Ondoren izendatuko dudan hau marrazten du: Makila baten puntan hiru zatiguneko ikurrina bat. Marra bertikal bat. Dorre-etxe bat sarrerako atearekin eta bi leihokin.

9. (Sandra, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—No. Si, pero no sé mucho.

¿Dónde se sitúan?

—Cerca.

¿Qué es el País Vasco?

—Un pueblo.

¿Dónde se sitúa?

—Aquí.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Mapa esfera izan nahi lukeen irudi bat marrazten du. Bertan zatiki bereztu irregular batzuk eman ditu.

### *1.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Cristina, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?

—Si, un primo va a Francia.

¿Dónde se sitúan?

—España está en Navarra y Francia está lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—Es una ciudad grandísima,

¿Dónde se sitúa?

—No sé. (Navarra está en España).

¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia.

—Europear hegoaldearen mapa diseinua izan nahi lukeen zerbait marraztu du. Espainiaren barrenean aski mendebaldean borobil irregular bat gorrian eraikiaz "Navarra" deitu du.

11. (Iñaki, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia.
—Si.
¿Dónde se sitúan?
—España está en Madrid y Francia cerca de Barcelona.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—Si, España está cerca, y Francia también.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa?
—Está en Navarra.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?
—Cristina klasekidearen marrazkiarekin zerikusian dago. Oraingo hau txikixagoa da, eta Espainiaren erdigunean borobil bat gorrian eraikiaz "Pais Vasco" deitzen du.

12. (Daniel, 7 urte)

¿Has oido hablar de España-Francia?
—Si.
¿Dónde se sitúan?
—España en Pamplona y Francia en Paris.
¿Están cerca o lejos de aquí?
—España si y Francia también.
¿Qué es el País Vasco?
—Donde hablan vasco.
¿Dónde se sitúa?
—Lejos de aquí.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación del País Vasco con España-Francia?

—Cristinak eta Iñakik erabilitako marrazki mota bera egiten du honek ere. Orain barreneko puntu berezia borobil txiki bat da eta "Navarra" deitzen du.

## *Adin sailari buruzko gogoeta*

Eskola eredu honetakoak dira "Espainia" gehien aipatzen dutenak. Bederatzik euren ustez badakite zerbait Espainiaz. Lauk bakarrik aldiz Frantzia errekonozitzen dute. Zazpik Euskal Herria aipatzen dute. Nola? Hori besterik da. Goazen banan-banan. Espainiaz ondoko hau digute: Gehienek diote "lejos' dagoela eurek bizi diren tokitik. Bik, "cerca". Eta horietarik, Cristinak: "España está en Navarra y Francia está lejos". Baina haur berak geroago beste hau dio: "Navarra está en España". Danielek berriz digu: "España está en Pamplona y Francia en Paris". Eta Inakik aldiz: "España está en Madrid y Francia cerca de Barcelona". Frantziari dagokionean ematen zaizkigun zehaztasunak laburrak dira benetan: "lejos" eta "cerca", alegia. Euskal Herria ere molde berezi batez aipatzen zaigu, Nafarroako haur hauen ahotan. Cristinak dio: "es una ciudad grandisima". Iñakik berriz: "está en Navarra". Eta Danielek dio: "donde hablan vasco". Eta,"¿dónde se sitúa", guk galdetzean: "lejos de aquí". Gipuzkoan hirutatik bik, "es una ciudad" eta hirugarrenak, "es un pueblo" diote. Bizkaian, bik "Barakaldo" dela. Hirugarrenak ez du ezagutzen. Araban, bik ez dute ezagutzen. Hirugarrenak dio "Gipuzkoa" dela. Eta non kokatzen den galdetzean: "Vitoria" erantzuten digu.

Marrazkien mailan, bereizitako borobilak dira nagusi Araban. Bizkaian, ez digute marrazkirik egiten. Gipuzkoan, makila baten puntan bandera dakarkigute. Nafarroan, mapa izan nahi lukeen deseinuak dira nagusi. Berezitasunak hauek lirateke. Batek, maparen barrenean, nahiz desplazaturik "País Vasco" idatzi duenean, beste bik "Navarra" ezarri dutela.

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Juan, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —Italia.
   ¿Por qué?
   —Porque ahí están mis tios.

2. (Miguel, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —España.
   ¿Por qué?
   —Porque vivo aquí.

3. (Paula, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —España.
   ¿Por qué?
   —Porque he nacido aquí.

### *2.2 Bizkaia, (A eredua, Bilbo)*

4. (Ana, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —Galdakano.
   ¿Por qué?
   —Porque vivo en Galdakano.

5. (Luis, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —Barakaldo.
   ¿Por qué?
   —Porque Bilbao es muy feo.

6. (Begoña, 7 urte)

   ¿Qué país te gusta?

—Barakaldo.
¿Por qué?
—No sé.

### *2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Silvia, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque vivo aquí.

8. (Tati, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Cáceres.
¿Por qué?
—Mis padres son de allí y voy en verano.

9. (Sandra,7 urte)

¿Qués país te gusta?
—Salamanca.
¿Por qué?
—Porque he nacido allí.

### *2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Cristina, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Inglaterra,
¿Por qué?
—Porque allí viven los ingleses y aprendo inglés.

11. (Iñaki, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Navarra.
¿Por qué?
—Porque es un pueblo pequeño.

12. (Daniel, 7 urte)

¿Qué país te gusta?
—Alemania.
¿Por qué?
—Porque nací allí.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

Adin bereko beste ereduetan ez bezala "A" eredu honetan norberaren sorrerarekin eta bizitokiarekin harremandutako arrazoiak eman dira gustatzen zaien aberria hautatzen dutela justifikatzekoan. Araban, Miguelek dio: "España, porque vivo aquí". Paulak: "España, porque he nacido aquí". Bizkaian, Anak: "Galdakao, porque vivo en Galdakao". Beste bik: "Barakaldo". Luisek justifikatzen du esanez: "porque Bilbao es muy feo". Gipuzkoan, Silviak dio: "España, porque vivo aquí". Tatik: "Cáceres, porque mis padres son de allí y voy en verano". Sandrak: "Salamanca, porque he nacido allí". Nafarroan, Iñakik: "Navarra, porque es un pueblo pequeño". Eta guztira hiru dira atzerritar Estatu bat aipatu dutenak. Aukera interesatuak dira: Juanek dio: "Italia, porque ahí están mis tios". Cristinak: "Inglaterra, porque allí van los ingleses y aprendo inglés". Danielek: "Alemanía, porque nací allí".

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 9-11 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Iñaki, 10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?
—Herriak
Zer da Euskal Herria?
—Herri bat.
Non kokatzen da?
—Espainiaren iparraldean.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa baten diseinu txarraz hiruak harremanetzen ditu nahiz Euskal Herria ez jakin oso ongi non dagoen.

Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Euskalduna.

Euskalduna bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Ez dute zerikusirik.

2. (Aitor, 10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Toki difirenteak.

Zer da Euskal Herria?

—Euskadi.

Non kokatzen da?

—Hemen.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espania, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa diseinua erabiltzen da. Mapa bikaina ez bada ere erlazioa eta kokapena itxurazkoak dira.

Zein da zure nazionalitatea? Zer naziotakoa zara?

—Euskalduna.

Euskalduna bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Besterik dira.

3. Ainhoa (10,urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Herriak.

Zer da Euskal Herria?

—Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia?

Non kokatzen da?

—Espainian.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa diseinua dator adierazteko. Aski logikoa da bere aurreko adierazpenekin, zeren Euskal Herria Frantziatik at uzten du.

Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Espainola.

Espainola bazara, zer esan nahi dute Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Ez dakit.

### *1.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Santiago,10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Nazio bi.

Zer da Euskal Herria?

—Nazio bat.

Non kokatzen da?

—Espainian.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa antzeko diseinu baten barrenean Euskal Herria izendatzen du. Espainia eta Frantziaren artean aurkitzen da.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Euskal Herrikoa.

Euskal Herrikoa bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Muga bi.

5. (Itxaso,10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Herrialdeak.

Zer da Euskal Herria?

—Aberria.

Non kokatzen da Euskal Herria?

—Pirineoen hegoaldean.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa diseinu berezi bat egiten da. Ez dago hirutan izendatua. Bakoitza non kokatzen den ez da agertzen.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Euskalduna.

Euskalduna bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Aberria.

6. (Marga, 10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Herrialdeak.

Zer da Euskal Herria?

—Aberria.

Non kokatzen da Euskal Herria?

—Iberia penintsularen iparraldean.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa baten diseinuaz aski ongi ailegatzen da errealitatera.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Euskalduna.

Euskalduna bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Herrialde haundiagoak.

### *1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Izaskun, 11 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Estatuak.

Zer da Euskal Herria?

—Estatu txiki bat.

Non kokatzen da?

—Europan.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Borobil haundi bat "mundua" izendatua marrazten du lehenik. Bere barrenean elkarri loturik hiru borobil. Goinenekoa Frantzia deitu du. Erdikoa, parte bat Frantzian sartuaz eta beste bat Espainian, Euskal Herria izendatu du. Behekoena, Espainia deitu du. Borobil guztien kanpotik buru eta aurpegi haundiko haur bat irri barretsu ageri da.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Espainiarra.

Espainiarra bazara, zer esan nahi dute Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Erdian nagoela.

8. (Xabi, 10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Estatuak.

Zer da Euskal Herria?

—Herri txiki bat.

Non kokatzen da?

—Espainian.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Bi borobil erabiltzen ditu. Haundienean, goian Frantzia eta beherean Espainia idatzi du. Trabeska erdia aurreko borobilaren barrenean eta beste erdia erabat kanpo duen borobil luze mehe bat egiten du. Euskal Herria deitzen du.

—Zein da zure nazionaliatate? Zer naziotakoa zara?

—Espainiarra.

Espainiarra bazara, zer esan nahi dute Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Barruan nagoela.

9. (Maddi, 11 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Estatuak.

Zer da Euskal Herria?

—Estatu txiki bat.

Non kokatzen da?

—Espainian.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Hiru borobil erabiliko ditu adierazteko. Beheraka eta ezkerretik borobil itxi bat, tamainaz bigarrena, Espainia deitu du. Goraka eta eskubitik borobil haundiena Frantzia deitu du.

Aurreko biak ikutzen dituela borobil txiki itxi bat Euskal Herria deitzen du.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Espainola.

Espainola bazara, zer esan nahi dute Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Barruan nagoela.

### *1.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Alexko, 9 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—País batzuk, herrialde batzuk.

Zer da Euskal Herria?

—Euskaraz hitz egiten den tokia.

Non kokatzen da?

—Araba, Vitoria, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan batzutan.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Mapa antzeko diseinu bat egiten du. Baina guk eskaturiko hiru erlazioak izendatzekoan mapa beraren barruan hiru puntu hautatzen ditu bi goian, bata Espainia eta bestea Euskal Herria izendatuz, eta hirugarren bat beherean Frantzia deitzen du. Zeharo nahastua da, noski.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Iruñakoa.

Iruñarra bazara, zer esan nahi dute Espainiak, Frantziak eta Euskal Herriak?

Beste leku batzuk dira.

11. (Saioa, 9 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Bakoitza país bat.

Zer da Euskal Herria?

—Euskaraz hitz egin behar litzakeen leku bat nahiz eta bai euskaraz bai erderaz hitz egin.

Non kokatzen da?

—Frantzia eta beste país baten artean.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Irudi hirukoitz bat egiten du. Ezkerrean dagoen aldeari Espainia deitzen dio. Erdian dagoenari Euskal Herria. Eta eskubian Frantzia tokitzen du.

Zein da zure nazionalitatea? Zer naziotakoa zara?

—Iruñakoa.

Iruñarra bazara, zer esan nahi dute Espainiak, Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Ez dakit.

12. (Naiara, 10 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Bi herrialde.

Zer da Euskal Herria?

—Euskaraz hitz egiten den tokia.

Non kokatzen da?

—Espainia eta beste herrialde baten artean.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Maparen irudi bereizi bat marrazten du. Bakoitzaren kokapena adieraztean sorpresa dator zeren ezkerrean lurralde txiki batekin Espainia dago. Erdian lukainka bat bezala luze izanaz Euskal Herria dager. Eta eskubian goitik behera doan luze mehe bat Frantzia deitzen du. Eta mapa irudiko diseinuaren parte haundiena izendapen gabe gelditzen da.

Zein da zure nazionalaitatea? Zein naziotakoa zara?

—Iruñakoa.

Iruñarra bazara, zer esan nahi dute Espainiak, Frantziak eta Euskal Herriak zuretzat?

—Beste herrialde batzuk.

## *Adin sailari buruzko gogoeta*

Argi dago estadio berri baten aitzinean gaudela. Badakite hiru entitate desberdin direla Espainia, Frantzia eta Euskal Herria. Orduan izen horiek aipatzean hautematen dutena diseinatzeko eskatzen diegularik hamabitatik bederatzitan mapa ereduaren bidez egiten dute. Ez beti behar den tokian eta neurrian ezarriz bakoitza, noski. Oraino guztia ez baitago argiturik euren buruetan. Hiru kasuetan borobilen bidez adierazten digute harremana. Honela denean nola proportzioz hala loturaz entitateen kategorizazioa akatsez beteta bada ere graduatuta ageri da. Hala ere, nazionalitateaz galdetzen zaienean, hiru kategoria egiten dira: bata, "euskaldunak" bezala definitzen direnena. Haundiena da. Bigarrena, "espainolak" bezala aitortzen direnena. Kasu honetan bada inkoherentziarik ere, zeren Maddik Euskal Herria hasteko, "Estatu txiki bat" bezala deskribatu du. Ondotik beste Estatu batean kokatu du, hots, Espainian, eta hirugarrenik, azken honen nazionalitatea duela aitortu du. Hirugarrena, beren nazionalitatea "Iruñarra" dela diotenena daukagu. Beste Euskal Herria bat eta osotasun koherente bat bizi dute. Are nazionaliatateari emandako erantzunaren arabera beste bi entitaterekin harremantzeko eskatu zainean, galduak agertu dira gehien batean. Aldi berean onartu ezinezko bezala ageri zaizkie zenbait aldtan: Iñakik, "euskalduna bazara..." -"ez dute zerikusirik"; Santiagok, "Euskal Herrikoa bazara..."-"muga bi".; Alexkok, "iruñatarra bazara..." -"beste leku batzuk dira". Besbe batzutan ez dakigu zer esan nahi izan duten: Izaskunek, "Espainiarra bazara..." —"erdian nagoela". Edo Xabik eta Maddik, "Espainiarra bazara."— "barruan nagoela".

Hiztegiaren semantika batzuetatik besteetara aldakorra zaigu ageri. Honela Euskal Herria zer den galderari erantzun desberdinak emango zaizkio: "Herri bat"; "Nazio bat"; "Aberria"; "Estatu txiki bat"; "Euskaraz hitz egiten den tokia". Ainhoak (Arabatik), "Araba, Gipuzkoa, Bizkaia", hots, Euskadi

Komunitate Autonomoa. Alexkok, (Nafarroatik), "Araba, Vitoria, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa", hots, bi Komunitate Autonomoak. Gainera, Araba eta Vitoria nahasten ditu.

Espainia -Frantzia zer diren ere mami diferentez agertzen zaigu: "Herriak"; "Toki diferenteak"; "Nazio bi"; "Estatuak"; "País batzuk"; "Bi herrialde".

D ereduari dagokionean, 9-11 urte arteko haurrentzat, euskaltasunaren formulazio intelektuala somatzen da. Erabilitako kontzeptuen semantikak eta mugak ez dira beti zehatzak baina Euskal Herriaren egoera nazionalitarioaren adierazpenak ernemuinduak ageri dira.

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Iñaki, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Inglaterra.
Zergatik?
—Nire anaiarekin inglesa ikastera joan behar naizelako.

2. (Aitor, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Estatu Batuak
Zergatik?
—Toki asko badelako bisitatzeko eta hiri haundiak daudelako.

3. (Ainhoa, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Italia.
Zergatik?
—Pizza eta pasta jatera joan nahi dudalako.

### *2.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Santiago, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Bermio.
Zergatik?
—Gustatzen iatalako.

5. (Itxaso, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Donostia, Egipto.
Zergatik
—Gauzak politak eta interesgarriak direlako.

6. (Marga, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Italia eta Amerika.
Zergatik
—Italia espagetiengatik. Amerika oso polita delako eta kontaminaziorik ez dagoelako.

### *2.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Izaskun, 11 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Amerika.
Zergatik?
—"Los vigilantes de la playa" daudelako.

8. (Xabi, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Donostia.
Zergatik?
—Lasaia eta polita delako.

9. (Maddi, 11 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Donostia.
Zergatik?
—Polita delako.

### *2.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Alexko, 9 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Frantzia.
Zergatik?
—Eurodisney eta nire osaba han daudelako.

11. (Saioa, 9 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Ez dakit.
Zergatik?
—Ez dakit.

12. (Naiara, 10 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Euskal Herria.
Zergatik?
—Euskara hizkuntza gustatzen zaidalako.

### *Adin sailari buruzko gogeta*

Piagetek adin honetakoen afektibitatea Suitzan neurtu zuelarik aurrerakada nabarmen bat ageri zela aurreko adinekoekiko zioen. Familia eta arbasoen tradizioei buruzko atxikimendua indartzen eta garaitzen ikusten zela. Berak lanean dakartzan adibideetan ehunetik ehunekoa da esandakoaren konfirmazioa. Euskal Herriko kasuan, eta D ereduari dagokionean behientzat, ez dugu diferentzia borobil hori nabarmendu. Interes egozentrikoa da nagusi. Adibidez, Iñakik dioenean, "nire anaiarekin inglesa ikastera joan behar naizelako",

Inglaterra gustatzen zait. Gehiagotan, aisa nabarmentzen da, bidaiekin edo oporrekin lotzen diren tokiak aipatzen baitira. Jateak ere tokia badu: Italia, "pizza eta pasta jatera joan nahi dudalako", edo "espagetiengatik". Mass-medien eragina ametsezko loturen sortzaile ageri da ere. Gustukoa justifikatzeko dabiltzanak laburbiltzera igarotzen bagara ondoko emaitza hauek dauzkagu. Hamabitatik bostek, hala ere, beren herria edo Euskal Herria hautatzen dute.

# Nazio ideiaren bilakaera 9-11 urte arteko haurrak, B ikasketa ereduan

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Iñaki, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una comunidad.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En Alava.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Iberia penintsulako mapa bat marrazten du. Bertan, garbi bereizten dira: Portugal, España eta honen barrenean mendebaldera zerbait desplazuta Euskal Herria. Frantziarik ez da ageri.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—Vasca.

Si es vasca, ¿qué significan España-Francia?

—Que somos españoles.

2. (Sara, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una provincia.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En Gasteiz.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa antzeko bat marrazten du. Ez da batere fina. Hala ere, mapa ofizialaren arabera, erlazioko hiru terminoak ongi kokatzen ditu. Euskal Herria, ordea, Espainian bakarrik legoke.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si eres española, ¿qué significa ser vasco?

—Estar en el Norte.

3. (Muskindra, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países...yo que sé.

¿Qué es el País Vasco?

—Ni idea.

¿Dónde se sitúa?

—Es Euskadi.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Marrazki konplikatu bat egiten du. Bi zati berezi daude nahiz eta elkarrekin lerro bat komuna eduki. Goikoa Frantzia deitzen du. Behekoa España eta honen barrenean eta kokalekutik zeharo desplazatuta geografikoki País Vasco ezartzen du Extremadura litzakeen puntuan.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Ni idea.

### *1.2. Bizkaia, (B eredua, Zornotza)*

4. (Victor, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Ciudades.

¿Qué es el País Vasco?

—Un pueblo.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Borobil luze eta irregular bat marrazten du. Bere barrenean hiru terminoak agertuko ditu. Ezkerrean puntu bat eginaz País vasco deitzen du. Erdian beste puntu bat eginaz España idatzi du. Eta eskuinean beste puntu bat ezarriz Francia izendatu du.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—Pamplonica.

Si eres pamplonica, ¿qué significan España-Francia y País Vasco?

—No sé.

5. (Amaia, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una comunidad.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relacion País Vasco con España-Francia?

—Lauki bat egiten du. Bere barrenean borobil irregular bat. Bitan bereizten da lerro komun bat dutelarik. Bati Espainia deitzen dio. Horren barrenean puntu bati berriz País Vasco. Beste zatikia lehena baino txikiagoa dena Frantzia deitzen du.

—¿Cuál es tu nacionalidad?
—De Bilbao.
Si eres bilbaina, ¿qué significan España-Francia?
—La frontera.

6. (Jon, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?
—Unos países.
¿Qué es el País Vasco?
—Un..., no sé cómo se dice, un sitio de España, una comunidad.
¿Dónde se sitúa el País Vasco?
—En España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?
—Lauki luzatu bat egiten du hasteko. Bere barrenean goitik behera doan mapa antzeko irregular bat. Goian Espainia ezartzen du. Horren anketan, muga batekin bereizia País Vasco. Beste beheragoko marra bat eginaz Irun deitzen du. Eta azken beherean marra lodiago bat "Frontera Francia" izendatzen du.
—¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
Si eres española, ¿qué significa ser vasco?
—Que soy euskaldun.

### *1.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia)*

7. (Iñaki, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?
—No sé.
¿Qué es el País Vasco?
—No sé.
¿Dónde se sitúa el País Vasco?
—En España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Orri osoa marrazten du. Goian ezkerrean, hiru etxe bloke, bideak, eta beheragoan etxe bakar bat ageri dira. Espainia deitu ditu. Goian eskubian, autobide zabal bat, erdian beste bide batek gurutzatzen du eta bide gurutzearen ezkerrean etxe bat bere zuhaitz eta guzti ageri da. Frantzia deitzen du. Beherean mendi kate bat, bi etxe bereiziak mendi artean, eta eskuinera areago hiru lerrotan etxe txiki sailkatuak bide eta guzti. País Vasco litzateke berau.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Español.

8. (Antton, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—No sé.

¿Qué es el País Vasco?

—Una provincia de Guipúzcoa.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En Guipúzcoa.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Orri zuri baten goi parte osoa marra irregular batez jazten du. Gainean ezkerretik, "Fuenterrabia" idatzia da. Bere pean "Playa". Marra itsasoan barrena eraman eta itzultzen du berehala. Hortik orria bete arte guztia "Playa de Francia" izendatu du.

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—El País Vasco.

Si es vasca, ¿qué siginifican España-Francia?

—No sé.

9. (Gotzon, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Capital

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En España.

¿Me puedes representar con un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa deitzen duen borobil irregular bat eraiki du. Bertan ezkerretik hasita, behetik gora, konpartimenduak daude, azpienean España, bere eskubian, Francia, eta ezkerrean País Vasco, eta honen gainean Paris. Eskubira jarraitzen badugu nahasketa izugarria da egiten duena, eta orotariko izenez betetzen du:"cancanya, cantábrico, américa, asia, rusia, alemania, méxico, inglaterra eta arabia".

—¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—España.

### *1.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Iñaki, 9 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Paisak.

Zer da Euskal Herria?

—Probintzia.

Non kokatzen da?

—Espainiakoa da.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—"Begiratu gabe ez", esaten digu. Mapa ikusi beharko lukeela ulertu diogu.

Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Aoitzekoa.

Aoitzekoa bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Ez dakit.

11. (Mikel, 9 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Espainia da kapital bat eta Parisen egona naiz.

Zer da Euskal Herria?

—Bai.

Non kokatzen da?

—Ez dakit.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Eskolan, aurrean zintzilik duen Espainiako mapa soegin eta marrazten entsegutzen da. Zurian eta izendatu gabe uzten du.

—Zein da zure nazionalitatea? Zein naziotakoa zara?

—Aoitzekoa.

Aoitzekoa bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Ez dakit.

12. (Igor, 9 urte)

Zer dira Espainia-Frantzia?

—Bai...

Zer da Euskal Herria?

—Bai...

Non kokatzen da?

—Ez dakit non dagoen.

Marrazki baten bitartez adieraziko al diguzu Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren arteko erlazioa?

—Ez zait gustatzen marraztea.

Zein da zure nazionaliatea? Zein naziotakoa zara?

—Jaio naiz Iruñan.

Iruñarra bazara, zer esan nahi dute Espainia-Frantziak zuretzat?

—Ez dakit.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

B ikasketa ereduan dabiltzen 9-11 urte arteko haurrek homogeneitate logiko bat ageri dute. Ulermenaren erdibidean

daude. Salbuespen deigarriekin, noski. Banan-banan galdeketari emandako erantzunak aipa ditzagun. Hasteko, "Espainia-Frantzia" zer diren galderari, inork ez dio Estatu edo nazio direla erantzuten. Hamabitatik zazpik, "paises", deitzen dituzte. Batek, "ciudades". Bik, "no sé" edo hirugarren batek, "bai" hutsarekin erantzuten dute. Erantzun nahastuak ere badira: "Espainia da kapital bat eta Parisen egona naiz".

Euskal Herriaz galdetzen zaienean, are oraino termino dibertsifikatuagoekin erantzuten dute. Honela esaten digute: "una comunidad" dela; "una provincia" dela;"un pueblo" dela, edo ere "capital" dela. Gehienik, "comunidad" ematen da. Ofizialki gaur deitzen dena, noski. Nahasteak ere badira. Norbaitek, "provincia de Guipúzcoa" dela dio. Funtsean, zehaztasun falta haundia nabari da.

Euskal Herria eta Espainia-Frantziaren arteko harremanak marrazkiz espresatzeko eskatzen zaienean, maparen errekurtsoa gailentzen da.

Hori bai, mapa eskasak egin ohi dira. Batzuetan zeharo urrun dabiltza aipatu hiru terminoei mapan toki bat ematekoan. Errealitatetik desplazaturik agertzen dira. Gutiengo batek oraino borobilen bidez edo lauki haundi baten barrenean borobilak emanaz egiten ditu. Zenbaitek ez du marrazteko ausardirik, beldur delako ez duela ongi eginen. Nabarmenki galdeketan parte hartu duten Nafarroako haurrek ez dute marrazkirik egin nahi izan. Beharbada, Euskal Herriaren tokian Nafarroa eskatu izan balitzaie besterik izan zitekeen.

Nazionalitatearen erantzunak esanguratsuak dira. Bostek, espainola edo Espainia dutela. Bik, euskalduna dutenean. Gehienek, beren sorterriaren izena emanaz erantzun dute.

## 2.Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Iñaki, 9 urte)
¿Qué país te gusta?

—América.
¿Por qué?
—Porque hay ciudades grandes y gheissers (sic).

2. (Sara, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Cuba.
¿Por qué?
—Porque ha estado mi madre y me ha dicho cómo es. Hay playas... Son pobres pero es bonito.

3. (Muskindra, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—América.
¿Por qué?
—Porque me gusta.

## *2.2. Bizkaia, (B eredua, Zornotza)*

4. (Victor, 10 urte)

¿Qué país te gusta?
—New York, Chicago, España.
¿Por qué?
—New York, porque es grande. Chicago, porque es grande también. Y España, porque hay montes (Bergara también está rodeada de montes).

5. (Amaia, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Londres.
¿Por qué?
—Se habla inglés.

6. (Jon, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Estados Unidos y Francia.

¿Por qué?

—Estados Unidos por mucho, porque es bonito, tiene monumentos y está bien, y Francia porque he ido, me han quedado cosas para ver.

## *2.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia)*

7. (Iñaki, 10 urte)

¿Qué país te gusta?

—España.

¿Por qué?

—Porque la gente vive como en otro ambiente.

8. (Antton, 10 urte)

¿Qué país te gusta?

—El País Vasco.

¿Por qué?

—Porque he nacido ahí y me gusta mucho.

9. (Gotzon, 10 urte)

¿Qué país te gusta?

—Paris.

¿Por qué?

—Porque está Eurodisney.

## *2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Iñaki, 9 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Bilbao, Euskal Herria.

Zergatik?

—Asko gustatzen zaidalako.

11. (Mikel, 9 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Euskal Herria.

Zergatik?
—Euskara idioma politena delako, niretzat eh!

12. (Igor, 9 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Espainia.
Zergatik?
—Gustatzen zaidalako.

## *Adin sailari buruzko gogeta*

Mass-medien eragina nabarmen loturan dago adierazten dituzten aukerekin. Hiruk bakarrik Euskal Herria hautatuko lukete, bik Espainia eta bik Frantzia edo Paris, gaineratikoek Estatu Batuak, Londres eta Kuba. Arrazoiketa "arrunta" da gehienean, "porque hay ciudades", "porque es grande", eta abar. Bi alditan arrazoiak esanguratsu bilakatzen dira. Honela, Iñakik dio, "me gusta España, porque la gente vive como en otro ambiente". Zer den maite duen giro hori?. Edo Mikelek dioenean, "Euskal Herria maite dut, euskara idioma politena delako, niretzat eh!". Adierazpen hauetan idealizatuak badira ere, ideal kolektibo orokorren ordenari buruzko sentsibilitatea nabari da. Baina, ez gaude Suitzako haur haien neurrietan.

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 9-11 URTE ARTEKO HAURRAK, A IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala ea e do kognitiboa

### *1.1. Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Iñigo, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una comunidad autónoma.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa irudia egiten du. Parte haundienari "País Vasco" deitzen dioenean, marra batek muga eginez gero datorrenari "Francia" deitzen dio.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Española.

Pero sí es española, ¿qué significa ser vasco?

—Que está en España.

2. (Natacha, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una comunidad autónoma.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En el mapa.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa irudi irregular batean izendaturik dagoen Espainia litzatekenaren barrenean kantauriaren erdian, zatitxo bat País Vasco deitzen du. Urrunago eta desplazaturik muga ere ageri da eta bi lerro irekitzen dira Frantziaren lekuko.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Estar en el mapa.

3. (Julian, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Países.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

—En España.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Udare baten antzeko borobil bat eginaz “País Vasco” deitzen du. Goi partean bi lerro irekizen zaizkio eta lerro horien artean “Francia” idatzia da.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—España.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Estar en España.

### *1.2. Bizkaia, (A eredua, Biblo)*

4. (Ibon, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Son lugares.

¿Qué es el País Vasco?

—Donde vivo yo.

¿Dónde se sitúa?

—Aquí.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Maparen diseinuaren bidez agertzen saiatzen da. Hala ere, badirudi berarentzat Euskal Herria Espainian kokatzen dela.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Española.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—No sé

5. (Luis, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Son países.

¿Qué es el País Vasco?

—Una comunidad.

¿Dónde se sitúa el País Vasco?

Está en el norte.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

Mapa irudia egiten da. Nahiko egokia da. Hala ere, Euskal Herria badirudi Espainian kokatzen duela.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Española.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—No sé.

6. (Maria, 10 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Son ciudades.

¿Qué es el País Vasco?
—Donde se habla euskara.
¿Dónde se sitúa?
—En el norte de España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia.
—Mapa marrazten zaigu. Euskal Herria Espainian legoke.
¿Cuál es tu nacionalidad?
—Vasca.
Si es vasca, ¿qué significan España-Francia?
—No sé.

### *1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Arantxa, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?
—Países.
¿Qué es el País Vasco?
—Pueblo.
¿Dónde se sitúa?
—España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?
—Lurrean sarturik dagoen makila baten puntan ikurrina berezi bat koloreztuta agertzen du. Oria, liraina eta berdea dira kolore horiek, hain zuzen.
¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
Si es española, ¿qué significa ser vasco?
—Aquí.

8. (Sara, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?
—Países.
¿Qué es el País Vasco?
—Una ciudad.

¿Dónde se sitúa?
—En España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?
—Neskatxa bat zutik marrazten du. Bere eskubiko eskuak harbela ikutzen du. Bertan mapa mundi baten antzeko zerbait ageri da.
¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
Si es española,¿qué significa ser vasco?
—Aquí.

9. (Egoitz, 10 urte)
¿Qué son España-Francia?
—Países.
¿Qué es el País Vasco?
—Un país.
¿Dónde se sitúa?
—En España.
¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?
—No sé.
¿Cuál es tu nacionalidad?
Euskadi.
Si es vasca, ¿qué siginifican España-Francia?
—España es mi país y Francia es otro.

### *1.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Esther, 9 urte)
¿Qué son España-Francia?
—Son países.
¿Qué es el País Vasco?
—Es una provincia. Navarra también es una provincia.
¿Dónde se sitúa?
—En la montaña.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa bat marrazten da. Aski ongi egina dago. Beherean, Afrikako muturra. Bere gainean, Iberiako penintsula. Honen ipar ekialdeka gorrian borobil irregular bar "Nafarroa" izendatzen da. Muga ez da marraz ixten.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Española.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Ser de una provincia.

11. (Rebeca, 9 urte)

¿Qué son España-Francia?

—Son países.

¿Qué es el País Vasco?

—Donde se puede hablar vasco.

¿Dónde se sitúa?

—Lejos.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa baten bidez saiatzen da. Iberiako penintsulan hegoaldean puntu gorri bat" Navarra" deitzen du. Frantziara igaroaz, Italiako penintsula litzatekenaren barrenean puntu gorri bat "País Vasco" deitzen du.

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Española.

Si es española, ¿qué significa ser vasco?

—Vivir por Francia.

12. (Dolores, 11 urte)

¿Qué son España-Francia?

—No he estado nunca en España. Francia está lejos.

¿Qué es el País Vasco?

—No sé.

¿Dónde se sitúa?

—Está hacia Zaragoza.

¿Me puedes representar por un dibujo la relación País Vasco con España-Francia?

—Mapa bat marrazten du. Iberiako penintsulan Lisboaren puntuan borobil irregular bat gorriz “Navarra” izendatzen du. Iberiako penintsulatik kanpo Frantziako Roussillon dagoen tokian beste borobil bat gorriz “País Vasco” deitzen du.

¿Cuál es tu nacionalidad.

—De Pamplona.

Si es de Pamplona, ¿qué significan España-Francia?

—Nada.

## *Adin sailari buruzko gogeta*

A ikasketa ereduko, 9-11 urte arteko haurren nazioari buruzko ikuspegia ez da kotzeptualki propio bilakatu oraino. Baina, A ikasketa eredu honetakoak dira estatuen ofizialtasuna gehien adierazten dutenak, noski. Espainia-Frantzia definitzekoan, hamabitatik bederatzik “países” bezala egin dute. Batek,”ciudades” bezala. Batek ere,”lugares’ bezala. Eta azkenik Nafarroako Doloresek molde atipikoz erantzun digu: “No he estado nunca en España. Francia está lejos”.

Euskal Herriari buruzko erantzunak bata besteandik dispertsatuagoak dira. Hiru dira bakarrik “comunidad” bezala definitzen. Bik,”no sé” diote. Besteentzat, ”país”, ”pueblo”, “ciudad”, ”provincia” litzateke. Hala ere, birentzat, “donde se habla euskara” litzateke. Bainan, non kokatzen den galdetzen zaielarik, bostek diote, ”en España”. Gainera, beste bik,”en el norte de España”. Badira ere erantzun deigarriak. Natachak dio: “en el mapa”. Estherrek Nafarroatik: “en la montaña”. Doloresek Nafarroatik: “está hacia Zaragoza”. Azkenik adierazpen lainotsuak daude: “lejos”, “aquí”, eta abar.

Marrazteko orduan, ia betik, mapa da errekurtsoa. Ez dira doiak. Hala ere, badira beste errekurtso batzuen bidez gauzatzen dutenak. Arantzak, lurrean sarturik dagoen makila baten puntan ikurrina berezi bat koloreztatuaz egiten du. Julianek, udare baten antzeko borobil batekin agertu nahi digu.

Nazionalitateari buruzko erantzunak esanguratsuak dira. Hambitatik hamarrek "espainola" dutela, diote. Bik, "euskalduna". Hala ere, hauetariko batek, Egoitzek, ¿qué significan España-Francia? galdetzean, "España es mi país y Francia es otro", ateratzen du. Doloresek Nafarroatik berriz, bere nazionalitatea, "de Pamplona" dela, dio.

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Iñigo, 10 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —España.
   ¿Por qué?
   —Porque es mi país.

2. (Natacha, 10 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —España.
   ¿Por qué?
   —Porque es mi país.

3. (Julian, 10 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —España.
   ¿Por qué?
   —Porque nací en España.

### *2.2. Bizkaia, (A eredua, Biblo)*

4. (Ibon, 10 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —Eurodisney.
   ¿Por qué?
   —Porque cuando estuve me lo pasé muy bien.

5. (Luis, 10 urte)

¿Qué país te gusta?
—Suiza.
¿Por qué?
—Porque me gusta la nieve.

6. (Maria, 10 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia.
¿Por qué?
—Porque quiero ir allí.

### *2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Arantxa, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Galicia.
¿Por qué?
—Porque hay playa.

8. (Sara, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Es mi país.

9. (Egoitz, 10 urte)

¿Qué país te gusta?
—Euzkadi (sic).
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.

### *2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Esther, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia.

¿Por qué?
—Porque de ahí es Laura Pausini.

11. (Rebeca, 9 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia. -Asturias.
¿Por qué?
Porque vive Laura Pausini. -Porque allí viven mis abuelos.

12. (Dolores, 11 urte)

¿Qué país te gusta?
—Zaragoza.
¿Por qué?
—Porque es grande y tiene más tiendas.

## *Adin sailarti buruzko gogoeta*

Sendia eta tradizioarekiko loturak (soziozentrikoak) nabarmentzen dizkiguten erantzunak daude, batetik. Honela hamabitatik lauk diote, "Espainia" dutela gustuko beren herria delako. Baita beste batek, "Euzkadi duela gustuko bertan sortua delako". Baina, bestetik, afektibitatearen adierazpen egozentrikoak ez dira desagartu. Ibonek dio: "me gustaría Eurodisney, porque cuando estuve me lo pasé muy bien". Arantzak: "Galicia, porque hay playa". Luisek: "Suiza, porque me gusta la nieve". Eta abar. Are mass-mediek haundizki eragindako afektibitatea daukagu. Honela Esther eta Rebecak diote:" nos gustaría Italia, porque de ahí es Laura Pausini".

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 12-14 URTE ARTEKO HAURRAK, D IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Aitor, 12 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskalduna.
Zergatik?
—Hemen bizi naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Ez.

2. (Kepa, 12 urte)

Zein da zure nazionaliatea?
—Espainola.
Zergatik?
—Gasteizen bizi naizelako.
Euskal Herrikoa ere bazara?
—Bai.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Bai.

3. (Jone, 12 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskalduna.
Zergatik?
—Euskadikoa naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Bai.

### *1.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Rakel, 12 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskalduna.
Zergatik?
—Euskadin bizi naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Erantzuna idatzia izatean, galdera hau zurian uzten du.

5. (Itxaso,13 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Espainola.
Zergatik?
—Han nagoelako enpadronatua edo hori, ez?
Euskal Herrikoa ere bazara?
—Bai.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Segun nola sentitzen zaren euskalduna, baina papeletan espainola jartzen du eta orduan nahitaez espainola zara.

6. (Vanesa, 13 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskadi.
Zergatik?
—Barakaldon jaoia naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Erantzuna idatzia ematean, galdera hau zurian uztzi du.

### *1.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Igor, 13 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Espainola.
Zergatik?
—Euskal Herrian euskaldunak izan nahi dugu, baina ez digute uzten.
Euskal Herrikoa ere bazara?
—Bai.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Ez.

8. (Tomas, 14 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskalduna.
Zergatik?
—Euskal Herrian jaio naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Ez.

9. (Arantza, 14 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Espainola.
Zergatik?
—Espainian jaio naizelako.
Euskal Herrikoa ere bazara?
—Bai.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Bai.

### *1.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Ion, 12 urte)

Zein da zure nazionalitatea?
—Euskal Herrikoa naiz.

Zergatik?
—Sentitzen naizelako euskalduna.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Ez, nik uste dut ezin dela.

11. (Maria, 12 urte)
Zein da zure nazionalitatea?
—Euskal Herrikoa naiz.
Zergatik?
—Ikastolara etorri naizelako.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Bai, nik uste dut ahal daitekela.

12. (Andres, 12 urte)
Zein da zure nazionalitatea?
—Euskal Herrikoa naiz.
Zergatik?
—Espainian egiten dutena ez dut oso ondo ulertzen. Gauza batzuk gaizki egiten dituzte.
Aldi berean espainola eta euskalduna izan al liteke?
—Bai, nik uste dut ahal daitekela.

## *Adin sailari buruzko gogoeta*

D ikasketa ereduan dabiltzan 12-14 urte arteko haurrek nazioari buruz duten hautematea aztertzean, ezagutza estadio berri batean sartuak garela jabetzen gara. Haurrak nazioari dagokionean orokortasun ikuspegi egituratu, koherente eta logikora ailegatzen dira batez beste. Bistan da, hala ere, Euskal Herrian bizi dugun nazio gatazka dela eta, bi egituraketa logiko desberdin aurkitzen ditugula: bata, orokortasun sistema abertzalea, eta bestea, orokortasun sistema estatala. Baina, nola bata hala bestea, bariante eta guzi, koherenteak dira. Xehetasunetara igarotzen bagara, ondoko datuak dauzkagu.

Hamabitatik zortzik beren nazionalitatea edo nazio aukera, "euskalduna", "Euskadikoa" edo "Euskal Herrikoa" aitortzen

dute. Benetako nazionalitate bakarra Estatuarena bada ere, borondatezkoa eta borrokazkoa hau litzateke. Nafarroako hiru haur "Euskal Herrikoa naiz" adierazpenarekin definitu dira. Azpimarratzekoa da berau. Aldiz, lauk, nazionalitatea "espainola" dutela, diote. Hala ere, zergatik? galdetzen zaienean, ezustekorik ageri zaigu. Honela, Itxasok, "han nagoelako enpadronatua edo hori, eh!", digu. Legalitate inposatuaren salaketa dirudi. Era berean kontsideratu behar dugu, Igorrek dionean, "Euskal Herrian euskaldunak izan nahi dugu, baina ez digute uzten".

Bi dira espainol nazionalitatea zeharo onartzen dutenak: Arantzak, "Espainian jaio naizelako"; Kepak, "Gasteizen jaio naizelako". Badirudi ezpairik gabe, Gasteiz Espainiatzat daukala azkenak.

Hirugarren perpausa bat ere bagenuen, hots, ea aldi berean euskalduna eta espainola izaterik zegoen? Bostek baietz diote. Lauk ezetz. Bik, galdera idatziaz erantzuten zutelarik, zurian utzi dute. Azkenik, Itxaso matizazioetan sartzen da: "Segun nola sentitzen zaren euskalduna, baina paperetan espainola jartzen du eta orduan espainola zara".

## 2.-Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (D eredua, Gasteiz)*

1. (Aitor, 12 urte)

   Zein herrialde gustatzen zaizu?
   —Estatu Batuak.
   Zergatik?
   —Oso haundia delako eta NBA gustatzen zaidalako.

2. (Kepa, 12 urte)

   Zein herrialde gustatzen zaizu?
   —Egipto.

Zergatik?
—Piramideak dituelako, etabar.

3. (Jone, 12 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Caribekoak.
Zergatik?
—Telebistan agertzen dituzten hondartzengatik.

### *2.2. Bizkaia, (D eredua, Bermeo)*

4. (Rakel, 12 urte?

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Jamaika.
Zergatik?
—Polita delako.

5. (Itxaso, 13 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Mexico.
Zergatik?
—Gustatzen zaidalako: herride txikiak, zuriak eta politak direlako.

6. (Vanesa, 13 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Euskadi.
Zergatik?
—Hemen bizi naizelako.

### *2.3. Gipuzkoa, (D eredua, Donostia)*

7. (Igor, 13 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?
—Gipuzkoa.
Zergatik?
—Hemen bizi naizelako.

8. (Tomas, 14 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Gipuzkoa.

Zergatik?

—Nirea eta gehien ezagutzen dudana delako. Martxa haundia dago.

9. (Arantza, 14 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Euskal Herria.

Zergatik?

—Euskalduna naizelako.

## *2.4. Nafarroa, (D eredua, Iruña)*

10. (Ion, 12 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Brasil.

Zergatik?

—Surfa asko gustatzen zaidalako eta hor asko egiten da. Eta bero asko egiten duelako.

11. (Maria, 12 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Frantzia.

Zergatik?

—Nire ahizpa joan zen eta oso polita zela esan zidan. Horregatik gustatuko litzaidake joatea.

12. (Andres, 12 urte)

Zein herrialde gustatzen zaizu?

—Cuba.

Zergatik?

—Gauza onak daude. Mobida pila, eta oso polita delako.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

D ikasketa ereduan 12-14 urte arteko haurren afektibitatean ez da garapen berezirik ageri. Estankatuak bezala agertzen zaizkigu. Salbuespenak erraz kontatzekoak dira: Bik, Euskadi edo Euskal Herria dute gogoko: "hemen bizi naizelako"; "euskalduna naizelako". Beste bik, "Gipuzkoa" hautatuko lukete: "hemen bizi naizelako"; "nirea eta gehien ezagutzen dudana delako. Martxa haundia dago".

Gaineratikoek, Estatu Batuak, Egipto, Karibe, Jamaika, Mexiko, Brasil, Frantzia eta Kuba hautatzen dituzte. Aukerak arrazoi egozentriko hutsez justifikatzen dira. Jonek gainera, telebistaren eragina espreski aitortzen du.

# NAZIO IDEIAREN BILAKAERA 12-14 URTE ARTEKO HAURRAK, B IKASKETA EREDUAN

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Alberto, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Porque nací en España.
¿También eres del País Vasco?
—Sí. Todavía no estoy nacionalizado en el País Vasco.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—(No quiere responder)

2. (Diana, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Vitoria.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.

¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

3. (Maria, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Porque he nacido en España.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

### *1.2. Bizkaia, (B eredua, Zornotza)*

4. (Asier, 14 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Porque he nacido en España.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

5. (Oscar, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Sí, porque el País Vasco está dentro de España.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—No sé. España.

6. (Nerea, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Amorebieta.

¿Por qué?
—Porque vivo aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser vespañol y vasco a la vez?
—Sí.

### *1.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia)*

7. (Jaime, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—No sé.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

8. (Amelia, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—San Sebastián.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

9. (Pedro, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.

¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—No sé. Pero creo que si.

### *1.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Esther, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque Navarra es una comunidad de España.
¿También eres del País Vasco?
—No.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—No.

11. (Estibalitz, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

12. (David, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque nací aquí.
¿También eres del País Vasco?
—No.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

B ikasketa ereduan 12-14 urte arteko haurren nazio ideiaren garapena garbi dager. Hamabitik bederatzik espainola edo Espainia dela beren nazionalitatea aitortu dute. Hiruk, beren sorterriak aipatzen dituzte nazionalitatetzat. Arrazoitzean, "porque he nacido aquí" da justifikazio nagusia. Baina, esaldi adierazgarririk ere aurkitzen da. Oscarrek, esaterako, "porque el País Vasco está dentro de España". Edo Estherrek, "porque Navarra es una comunidad de España".

Euskal Herriko ere badiren galdetzean, bederatzik baietz diote. Ohargarri horien artean Albertoren adierazpena: "Si. Todavia no estoy nacionalizado en el País Vasco". Bik, ezetz diote. Hala ere, Nafarroatik ari direla azpimarratu behar dugu.

Euskaldun-espainol, aldi berean, izan daitekeen perpausari, zortzik baietz diote. Bik, ez dakitela. Hauetariko batek, Oscarrek, "No sé. España", dio. Esther da bakarra ezetz borobila ematen. Espainola izatea beste jokabiderik ez dagoela garbi utzi nahirik.

## 2.Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (B eredua, Gasteiz)*

1. (Alberto, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—Alemania.
¿Por qué?
—Porque es más ordenado... por los horarios.

2. (Diana, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—América
¿Por qué?
—Porque hay sitios divertidos por ejemplo Disneyworld.

3. (Maria, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—Estados Unidos.
¿Por qué?
—Porque es un país muy actualizado.

### *2.2. Bizkaia, (B eredua, Zornotza)*

4. (Asier, 14 urte)

¿Qué país te gusta?
—¡Yo qué sé! Inglaterra.
¿Por qué?
—Porque hace mal tiempo.

5. (Oscar, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—Por decir alguno... todos más bien.
¿Por qué?
—No sé.

6. (Nerea, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—País Vasco.
¿Por qué?
—Porque soy de aquí.

### *2.3. Gipuzkoa, (B eredua, Donostia)*

7. (Jaime, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—No sé. España.
¿Por qué?
—Porque vivo ahí.

8. (Amelia, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—El País Vasco.

¿Por qué?
—Porque vivo aquí y me gusta lo que hay.

9. (Pedro, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—No sé. Estados Unidos.
¿Por qué?
—Porque hay mucho ambiente.

### *2.4. Nafarroa, (B eredua, Aoiz)*

10. (Esther, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia.
¿Por qué?
—Porque allá vive el Papa, y con esto tocamos cosas importantes.

11. (Estibalitz, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Italia.
¿Por qué?
—Porque sí.

12. (David, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Estados Unidos.
¿Por qué?
—Porque están más avanzados.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

B ikasketa ereduan, 12-14 urte arte haurren afektibitatean, ez da garapen orokor homogeneorik, baina garapen seinaleak ageri dira. Soziozentrismoak badu aukeretan presentziarik: Bik, Euskal Herria gustuko dute, "porque vivo aquí y me

gusta lo que hay". Batek, Espainia, "porque vivo ahí". Ideal kolektiboen justifikazioak ere ageri dira: Estatu Batuak, Alemania, Italia, Inglaterra lituzkete gogoko aukeran dituztenen artean. Albertok dio: "Alemania, porque es más ordenado...por los horarios"; Mariak, "Estados Unidos, porque es un país muy actualizado"; Estherrek, "Italia, porque allá vive el Papa, y con esto tocamos cosas importantes". Davidek, "Estados Unidos, porque están más avanzados".

# Nazio ideiaren bilakaera 12-14 urte arteko haurrak, A ikasketa erduan

## 1. Adierazpen intelektuala edo kognitiboa

### *1.1.Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Manuel,12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Porque nací en España
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

2. (Iñigo, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque vivo y nací aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.

¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

3. (Izascun, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque vivo aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez.
—Sí. Bueno, dicen que el País Vasco es independiente.

### *1.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo)*

4. (Martin, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Española.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.
¿También eres del Páis Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

5. (Maite, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque soy de allí.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

6. (Nagore, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?

—Vasca.
¿Por qué?
—Porque soy del País Vasco.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Se calla.

### *1.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Denis, 13 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Irun.
¿Por qué?
—Porque mi padre y mi madre me parieron aquí.
¿También eres del País Vasco?
—Yo no me siento de Irun, sino de Africa (Ghana), ya que mi madre es de ahí y mi padre de Maya.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—(Al pedir la respuesta por escrito ha dejado la casilla correspondiente vacia)

8. (Gorka, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad.
—Donostiarra.
¿Por qué?
—Porque ahí me parió mi madre.
¿También eres del País Vasco?
—Sí.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—No.

9. (Juan Carlos, 14 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Barcelona.
¿Por qué?
—Porque nací ahí.

¿También eres del País Vasco?
—No soy del País Vasco.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—No se puede.

### *1.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Usua, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—Navarra.
¿Por qué?
—Porque de Andalucia mi madre vino aquí.
¿También eres del País Vasco?
—No.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Si.

11. (Zuriñe, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad.
—Navarra.
¿Por qué?
—Porque he nacido en Pamplona y está en Navarra.
¿También eres del País Vasco?
—Un poco.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí.

12. (Iñaki, 12 urte)

¿Cuál es tu nacionalidad?
—España.
¿Por qué?
—Porque mis padres son de aquí.
¿También eres del País Vasco?
—No.
¿Se puede ser español y vasco a la vez?
—Sí, pero el País Vasco está en España.

### *Adin sailari buruzko gogoeta*

A ikasketa ereduan 12-14 urte arteko haurren garapen intelektuala nahastuki adierazgarri gertatzen da. Sei haurrek beren burua espainoltzat deklaratu dute. Hauen artean ez dago justifikazio esanguratsurik. Bat, Nagore, euskalduna aitortzen da: "porque soy del País Vasco". Bik, Nafarroa, aipatzen dute nazionalitatetzat. Usuaren justifikazioa adierazgarri gertatzen da: "porque de Andalucia mi madre vino aquí". Gaineatikoek beren sorterriak aipatzen dituzte nazionalitatetzat.

Euskal Herriko ere badiren galderari honela ihardesten zaio. Seik, baietz diote. Bik, Nafarroatik, ezetz. Hala ere, batek, Nafarroatik, "un poco", dela. Deigarrienak ezetz diotenen arrazoiketak dira. Denisek dio, "yo no me siento de Irún, sino de Africa (Ghana), ya que mi madre es de ahí y mi padre de Maya". Juan Carlosek dio, Barzelonakoa dela deklaratu ondotik, "no soy del País Vasco", nahiz Irunen bizi.

Euskaldun-espainol, aldi berean, izateari, zortzik baietz diote. Bik ezetz. Beste bik, idatzia zurian itzultzen dute. Bi justifikazio aipagarritzat azpimarratuko ditugu. Izaskunek dio, "Sí. Bueno, dicen que el País Vasco es independiente". Iñakik dio, berriz, "Sí, pero el País Vasco está en España".

## 2. Adierazpen afektiboa

### *2.1. Araba, (A eredua, Gasteiz)*

1. (Manuel, 12 urte)

   ¿Qués país te gusta?
   —Francia.
   ¿Por qué?
   —Porque es bonito.

2. (Iñigo, 12 urte)

   ¿Qué país te gusta?
   —El País Vasco.

¿Por qué?
—Porque vivo aquí, y ya me he acostumbrado, y me gusta.

3. (Izascun, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—América.
¿Por qué?
—Porque es muy bonito y grande. Y dicen que hay buenas personas.

### *2.2. Bizkaia, (A eredua, Bilbo)*

4. (Martin, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque he nacido allí.

5. (Maite, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque soy de allí.

6. (Nagore, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Londres.
¿Por qué?
—Porque fuí de vacaciones y me gustó.

### *2.3. Gipuzkoa, (A eredua, Irun)*

7. (Denis, 13 urte)

¿Qué país te gusta?
—Me gusta Ghana.

¿Por qué?
—Es tranquilo y radical.

8. (Gorka, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Brasil.
¿Por qué?
—Porque hay tias muy buenas.

9. (Juan Carlos, 14 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque es super campeona. Hay gente guay. Porque las discotecas son guapas.

## *2.4. Nafarroa, (A eredua, Beriain)*

10. (Usua, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Navarra.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí.

11. (Zuriñe, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—Navarra.
¿Por qué?
—Porque soy de aquí.

12. (Iñaki, 12 urte)

¿Qué país te gusta?
—España.
¿Por qué?
—Porque he nacido aquí y mis padres también.

## *Adin sailari buruzko gogoeta*

A ikasketa ereduan, 12-14 urte arteko haurretan, nazio ideiaren afektibitate bilakaerari buruzkoa, hiru erreferentzia sistema desberdin dituen soziozentrismoaz definitzen da, batetik, eta exotismo merkeaz, bestetik.

Lehenari dagokionean, lauk Espainia dute gustuko. Juan Carlosen justifikazioa dugu ekarri esanguratsu zaigunez:" España, porque es super campeona. Hay gente guay. Porque las discotecas son guapas". Bik, Nafarroa dute hautatzen. Batek, Euskal Herria. Gaineatikoek, Frantzia, America, Londres, Ghana eta Brasil. Denisek dioenak, (13 urte, Irun) soziozentrismoaren eta fundamentalismoaren aitorpena dirudi:-"me gusta Ghana" aitortu ondotik, honela justifikatzen baitu, "porque es tranquilo y radical". Azpimarragarria ere Gorkaren esaldia estereotipoen lekuko delako: —"Brasil, porque hay tias muy buenas". Edo Izaskunena, topiko eta idealismo artean dabilelako: —"América, porque es muy bonito y grande. Y dicen que hay buenas personas".

## Inkestaren irakurketa luburbiltzailea eta konparatzailea

Gure inkestak, aldi berean, hiru dimentsio konprobatzeko aukera ematen digu: lehenik, ezagutza estadioen bilakaera nazio ideiaren inguruan nola ematen den (horretarako Piagetek eginikako adin berezketa eta galdeketa jarraitu dugu); bigarrenik, Euskal Herrian hiru eredutan bereizirik dagoen hezkuntza sistema erabiliaz haurretan ereduen gidaritza pedagogiko nabarmenik sortzen ote den nazio ideiaren garapenerako jakin nahi izan dugu; eta azkenik, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako datuak banan-banan jarraituaz, beren idiosinkrasiagatik herrialdeak nazio ideiaren garapanean diferentzia sortzaile ote diren ezagutzen saiatu gara.

Emaitzak laburki bada ere honela komenta ditzakegu.

### 1. Ezagutzako estadioen bilakaera.

Euskal Herriko haurretan nazio ideiaren bilakaeraz egin dugun inkestak, oro har, Piageten kontzeptu-ikasketan agerturiko haurren ezagutza-bilakaeran garatzen doazen hiru estadioak konfirmatzera eraman gaitu. Nola planteaturik zegoen eta zertara heldu garen?

Hori bera argitzen saiatuko gara, orain eta hemen.

Piagetek nazio kontzeptua baloreen koordinaziorako lanabes bezala definitzen zuen. Puntu hau da, hain zuzen, lehenik eztabaidatzen dioguna Piageti. Izan ere, Estatu nazioei beren espazioan, legeria, norma eta gobernuko makinaria propioa disputatzen dioeten mugimendu nazionalitarioek ere baloreen koordinazioko lanabes izatea lortzen baitute. Hau erakutsi nahirik, sarreran eskaini izan diogu atal bat "kategoria nazionalitarioen" arazoari.

Ohar hau eginaz gero, lot gakizkion Piageten nazio kontzeptuari. Bi galdera egiten zituen kontzeptu honekiko eta paradoxa batekin topaturik, aterabide bat atzematen saiatu zen.

Bi horietariko lehen galdera, nazioa eta atzerritarrekiko harremanak haurraren loturan ezaugarritzen dituzten portaera kognitibo eta afektiboei zuzendua zihoan. Piagetek dio, ea geroko bizitza politikoan ager daitekeen desegokiera internazionalaren ernemuina ez ote datorren aipaturiko portaera horietatik?

Bigarren galderaren bidez, haurrak bere bilakaeran, geroago gaztetxo eta adin helduko bizitzan parte ukanen duten tentsio edo desegokitze faktoreei erresistitzeko lain izanen diren izpirituzko objektibitatea eta elkarkidetasuna zergatik behar hainbat lortzen ez dituen jakin nahiko du.

Hasteko lortzen duen erantzuna da, haurrak nazio kontzeptua bereganatzean, nahiz geroko desbideratzeak ez ekidin erabat, nola kognitibo hala afektibo koordinaziorako lanabes landu baten eraikuntza suposatzen duela. Haurraren bizitzan erlatiboki berandu agertzen den nazio kontzeptua nahitaez gero soziozentrismoan erori behar den susmorik ez dager. Aurrerago egin aitzin aipa dezagun ere Piagetek hiru soziozentrismo forma bereizten zituela: izaera soziomorfikodun errepresentazio kolektiboetan funtsa duen primitiboa da lehena, klaseen ideologian sostengatuta klase sozialengatik sortutako gatazkaren produktu den soziozentrismoa da bigarrena, eta elkarkidetasunaren desbideratzea den soziozentrismoa da hirugarrena.

Haurrak, nazio propioaren kontzientzia kognitibo eta afektibora heltzeko, bere sorterria, eskualdea, probintzia, komunitatea eta abarrekiko deszentrazio lana egiten du batetik, eta bereak ez diren ikuspegiekin lotura lortzeko koordinazio lana egiten du bestetik, zeintzuk bereak ez bezalako nazio eta ikuspegien ulermenera daramaten. Desbideratze eta tentsioen kausa bihurtuz hastapeneko deszentrazioak hauei oposatutako oztopoak eta mota desberdinetako influentzia kanpotiarrak egingo ditu soziozentrismo agerpenaren arrazoia.

Hastapen batean, nola kognitiboki hala afektiboki molde inkontzientean bada ere, bere buruaren eta besteenaren ulermenari oposatzen den egozentrismoa somatzen da haurrengan. Horrela bada, egozentrismoaren garaipenak, elkarkidetasun operazioetan oinarritutako koordinazio lanabes kognitibo eta afektiboaren eraikuntza suposatzen du. Egozentrismoa, nola egoismo primitiboaren ondare bezala hala desbideratze eta tentsioen kausa bezala, soziozentrismoaren forma pean, aro desberdinetan agertzen joango delarik.

Nazio kontzeptuaren bilakaera, haurraren bizitzan, nola portaera mentala edo kognitiboa hala afektiboa bezala konpreniturik, hiru estadiotan gauzatzen da. Funtzio kognitiboek portaeren egiturak mugatzen dituztenean, funtzio afektiboek aldiz dinanismoa, hots, xedea edo balorearen elementuak ziurtatuko lituzkete.

## *Arlo kognitiboa*

Lehen estadioan, hots, haurraren bizitzan lehen zazpi urteak hartzen dituenean, Espainia, Frantzia eta Euskal Herria marrazteko eskatzen diegunean, elkarren ondoan ipinitako unitateak besterik ez dira ageri.Zatiaren eta osoaren arteko harremana ez dutela ulertzen ageri da. Espainia, Frantzia eta Euskal Herriaren entzutea bera ere ez daukatela diotenak badira. Zailtasun horien lekuko erantzun zenbait gogoaraziko dugu. Iñigok (7 urte, Iruña) zer da Euskal Herria? gure galdera-

ri hau erantzun dio: —"Leku bat". Estibalitzek (7 urte, Gasteiz) berriz beste erantzun hau eman du: —"Telebistan erakusten dutena".

Bigarren estadioan, hots, zortzi urtetik hamaikara doanean, zatiak osoaren barrenean kokatzen hasten dira, baina nahitaez klase logikoen inklusiorik adierazi gabe. Euskal Herria, Espainia eta Frantzia marrazki bidez harremanetan jartzeko eskatu diegunean maparen errekurtsoa erakutsi digute. Unitate desberdinen kontzientzia eta txikia haundiaren menpeko agertzeko joera agertu dira. Hala ere, harremanak eta proportzioak ez daude finkatuak. Kontradikzioz betetako adierazpenak dira gehienetan.

Hau guztia oraino nabariago izan da beren nazionalitatea edo naziotasuna aitortzeko eta esplikatzeko eskatu diegunean. Hasteko, nazio sistema desberdinen errepresentazioak daudela Euskal Herriko haurren buruetan garbi gelditu da. Orduan, ondoriotu behar dena da ere, ez dela logika kontu hutsa erantzunetan gertatzen den nahaspila. Aukera kontziente eta indartsuak eragindako diferentziekin aurkitzen gara. Honetan datza, beharbada, Piageten inkestatutako haurrekiko diferentziarik nabarmenena. Suitzan, piskaka, Estatu-nazioaren ideia nagusitzen eta inposatzen ikusten denean, Euskal Herrian, abertzaleen naziotasun ideiak, haurren munduan ere, konpetentzia egiten dio Espainia edo Frantziaren Estatu-nazio ideiari. Elkarkidetasun izaerako nazionalitario sistema eraikita dagoela konstatzen dugu. Ezpairik gabe, gizarte osoan bezala, haurren munduan ere, gatazkan dago eraikuntza hori, baina, present eta irmo dago.

Hirugarren estadioan, hots, hamabi urtetik hamalaura doanean, ideal kolektibo batzuk agertzen eta hedatzen direla ohartzen gara. Marrazkietan, gehienean, adierazpenak aski zuzenak dira. Hizkuntza politikoaren alorreko terminologiak haurren buruetan toki justua hartua du. Hala ere, Piagetek, bere lanean Suitzarentzat ematen dizkigun adibideetan ageri den ziurtasun eta zehaztasunik ez da ageri Euskal Herrian. Arra-

zoia emana dugu jadanik: nazio sistema desberdinen lehia dagoelako gurean.

## *Arlo afektiboa*

Lehen estadioan, zazpi urte arteko haurretan, ez dago argi inolako kriteriorik duten aukera afektiboak egiteko orduan. Unean uneko interesen funtzioan maitemintzen dira Herriez. Beren ingurune indibidualetik at eratortzen diren errealitateei buruz ez dute balorerik atribuitzeko laintasunik ageri. Errealitate kolektiboak beren balore mundutik urrun daude. Beren nazioari buruz ezin zitakeen bestela izan: ez dute balore afektibo koordinaturik. Beren egozentrismo espontaneo eta inkontziente hori janaritzekoan jolasak, bidaiak eta oporrak dira nagusi. Adin bereko alor kognitiboan bezala afektiboan ere nahasketa dager. Telebistaren eragina ere azpimarragarria da: —Josunek (6 urte, Donostia) —"Amerika gustatzen zait, bertan "Los vigilantes de la playa" daudelako". Telebista serie baten ikusketaren eragina. —Alain, (7 urte Donostia)— "Holanda, bertan Ronald Koeman bizi delako eta Amerikan dago. Eta Bilbo, bertan Klemente bizi delako eta Bizkaian dago".

Bigarren estadioan, zortzitik hamaika urte arteko haurretan, mugiarazteko arrazoi indibidualen ordez sendian eta arbasoen tradizioan zutitzen diren arrazoiak gainartzen doatza. Naiara, (10 urte Iruña) —"Euskal Herria gogoko dut, euskara hizkuntza gustatzen zaidalako". —Iñaki (10, urte Donostia)— "Me gusta España, porque la gente vive como en otro ambiente". Hala ere, aurreko estadioko gauza anitz errepikatzen da.

Hirugarren estadioan, hamabitik hamalua urte arteko haurretan, balore abstraktoek hierarkian gailurra hartzen dute. Deszentrazioaren eta intelektual, afektibo edo moral koordinazioen artean paralelismo bat gauzatzen doa. Gure Euskal Herriko inkestan ez zaigu hau guztia gehiegi nabarmentzen. Badirudi aurreko estadioko egoera sendotu besterik ez dela egin oraingoan. Egindako aukera justifikatzekoan, gogoko

esaldi bilakatu dira: "Hemengoa naizelako"; "Hemen sortu naizelako"; "Nire gurasoak hemengoak direlako". Hala ere, tartekatzen dira goi baloreen adierazpenak: Estherrek dio (12 urte, Aoiz), "Me gusta Italia, porque allí vive el papa, y son cosas importantes"; David, (12 urte, Aoiz), "Me gusta Estados Unidos, porque están más avanzados",eta abar.

## 2. Gidaritza pedagogikoen eragina nazio ideiaren bilakaeran. Euskal Herriko hiru ikasketa ereduen lekukotasuna.

Vygotskiren metodo instrumentalean haurraren pentsamendua eraikitzekoan, guk adin heldukok, transmitzen dizkiogun sistema sinbolikoen garrantzia aipatzen zaigu. Vygotskik berak sistema sinboliko horiek "lanabes psikologikoak" deituko ditu, eta prozesu psikikoak "kanpoaren errotzearen bidez barreneratzen direla", erakusten saiatu zen. Ezagutza prozesu ororen eta bilakaera ororen hastapenean akzioa baitago. Eta akzioa errealiate materialaren aitzinean ezaugarritzen duena, bere antolamendua da, hots, bere operazioen jarraipena eta bere emaitza.

Haurrari dagokionean, zera esan behar da, akzioa behin ere ez dela bakartua, ez baitu bere baitako motrizitaterik. Desira ingurune batean sortu eta bilakatzen da, hots, objektu eta espazioenean, gaineatiko pertsonenean. Ingurune material honetan bada, akzio pertsonalak bestearena aurkitzen du eta bestearen ereduak nola espresioan hala egitatean, jarduteko eta komunikatzeko desirioaren bilakaeran faktore berri bat suposatuko du. Jabetze mimesiaren aitzinean gagoz, hots, bestearen akzioa, eredua, portaera, hizkuntza geureganatzeko dugun desira maizenen inkontzientean. Jabetze portaera hauek dira hain zuzen, pertsona ikasketa desiratzera bultzatzen dutenak. Azken buruan, adin heldukok ditugun ereduak daude, hots, gizarteari eta inguruneari lotuta gurasoek eta irakasleek baloratzen dutenak haurren aktibitatean zuzeneko interbentzioa daukate.

Euskal Herriko haurrak hiru ikasketa eredutan zatiturik daudenez zenbateraino eredu horiek beren balore propioak ez ote dituzten eta haurren nazio ideiaren bilakaeran present ez ote dauden jakin nahi izan dugu.

Ondorioak adierazgarriak izan dira.

—Zazpi urte arteko haurretan, D ereduan ikastolek osoturiko sarea dagoela kontutan hartzen badugu, euskal sistema nazionalitarioaren adierazpenak nabarmen agertu beharko liratekela, pentsatzea zilegi litzake. Baina, arlo kognitiboari dagokionean, zazpi urte artekoen artean ez da somatzen transmisio berezirik. Hala ere, D eredu honetako haurren artean bakarrik atzeman dugu hiztegi mota bat: "aberria; Euskal Herria euskaraz hitz egiten duen gizataldea; eta herria" bezalako esaldiak, alegia. Afektibitate mailan ere ez dago ñabardura berezirik.

B ereduan, urte horietan atzematen denak nagusiki gazteleraz jarduteak berarekin daramatzan diferentziaren kutsadurak ageri ditu. Gainera, orohar Espainia ezagunago zaie. Afektibitate arloan beste horrenbeste esan behar da.

A ereduan, Espainiaren ezagutza nabari da. Bederatzik euren ustez badakite zerbait edo gehiago Espainiaz. Aldiz lauk bakarrik Frantzia zagutzen dute. Zazpi dira Euskal Herria aipatzen dutenak. Estatu-nazio sistemaren ernemuina itsatsia dager. Afektibitate mailan aurrez arlo kognitiboan adierazi duguna konfirmatu egiten da.

—Zortzitik hamaika urte arteko haurretan, D ereduan, euskal sistema nazionalitarioa finkatzen ageri da. Euskal Herria: Herri bat, Euskadi, Nazio bat, Aberria, Estatu txiki bat bezala definitzen dute nagusiki. Afektibitateari dagokionean, beste arrazoiketa bat ageri bada ere, ez da maila berean fijaziorik agertu. Aurreko estadioan bezain banatua jarraitzen du gustuen munduak.

B ereduan, ohargarriena autonomia estatutuen ofizialitatea erreferentzia izatearena da, hots, Euskal Herriari dagokioean autonomia estatutuen ezagutza da: "Comunidad autónoma; pueblo; ciudad; país; provincia "bezala definitzen baitute. Afektibitatea arruntago dager.

A ereduan, Espainiarentzat bezala Euskal Herriarentzat, gaurko statu quoa adierazten den terminologia da nagusi, baina, nazionalitatearen galderan Estatu-nazioarekiko fijazioa nabarmentzen da. Afektibitatea neurri berean, baina dispertsio gehiagorekin ematen da.

—Hamabitik hamalau urte arteko haurretan, D erduan, euskal sistema nazionalitarioaren presentzia nabarmena da, baina, "aldi berean euskalduna eta espainola izan litekeen" galderaren aitzinean aburu zatikatuak daude. Honela bada, garbi dago gidaritza pedagogikoa ez dela aldagai bakarra, eta gutiago definitiboa, haurraren nazio ideia erabakitzekoan. Afektibitatea guti aldatu da aurreko estadioren erreferentzian.

B ereduan, inork ez du aipatzen euskal nazionalitatea, salbu Donostiakoa, Gasteizkoa, Zornotzakoa edo Aoizkoa dutela deklaratu dutenen kasuetan zeharka hori ikusten ez dugun. Baina, aurreko erduan egin dutenez zuzenki ez da aitortzen. Euskalduna eta espainola aldi berean izatea ia erabateko baietzaz ihardesten da. Afektibitateari dagokionean, balore abstraktoen presentzia haunditzen da: Alberto, (13 urte, Gasteiz), "me gusta Alemania, porque es más ordenado...por los horarios"; Maria, (13 urte, Gasteiz) "me gusta Estados Unidos, porque es un país muy actualizado". Eta abar

A ereduan, Espainiaren estatu-nazio sistema islatzen da. Hala ere, ez da oro homogeneoa. Bada Denis bezala (13 urte, Irun) Irungoa duela bere nazionaliatea aitortu ondoan, euskalduna eta espainola aldi berean izaterik dagoen galderari erantzun nahi ezean utzi dioenik. Aldiz, Iñakik (12 urte, Beriain), euskalduna eta espainola aldi berean izaterik dagoen galderari, "sí, pero el País Vasco está en España" erantzun dio. Afektibitate alorrean ez dago berrikuntzarik.

## 3. Herrialdeak nazio ideiaren bilakaeran

Gidaritza pedagogikoa aldagai operatibo dela agertu zaigu nazio ideiaren bilakaeran. Orain, irakaskuntza ereduak he-

rrialdeka zenbateraino desberdintzen diren neurtu nahi dugu. Euskal Herria administrazio sistema deserdinetan zatituta egotea artifiziala ala idiosinkratikoki mamitsua den jakin nahi dugun.

Ereduak eredu, diferentzia nabarmena dager Euskadi Komunitate Autonomoaren eta Nafarroa Komunitate Autonomoaren artean. Banan-banan azterketaren seinalagarriena aipa dezagun. D ereduan, zazpi urte artekoek, Euskal Herria zer den eta non kokatzen den Nafarroan beste eskualdeetan baino gutiago dakite. Are, zortzitik hamaika urte artekoek, Nafarroan Euskal Herria definitzekoan "euskara hitz egiten den tokia" aipatzen dute, hizkuntz-kultura dimentsioa nabarmentzen delarik. Nazionaliatea berriz, Iruñarra diote. Gehiago dena, Iruñarra Euskal Herriari oposaturik eman daiteke: Alexko, (9 urte, Iruña), —"Iruñarra bazara, zer esan nahi dute Espainiak, Frantziak eta Euskal Herriak? —Beste leku batzuk dira". Hamabitik hamalaura, hala ere, beren nazionalitatea "Euskal Herrikoa aitortzen dute".Maila afektiboan ere Euskal herriaren ausentzia da nagusi Nafarroako haurretan, hots, Nafarroa beste zerbait bezala daukate.

B erduan, zazpi urte arteko haurretan, lau herrialdeetan ezagutzak anitz parekatzen dira. Eredu hau da statu quoaren islarik onena ematen duena. Zortzi hamaika urte artekoetan, berriro Nafarroan, zer den Euskal herria gaderari, "ez dakitekin" ihardesten zaio. Nazionaliateari buruz, "Aoiztarrak direla" diote. Hamabitik hamalaura, "Nafartasuna" indartzen da: Esher lekuko (12 urte, Aoizkoa), zein da zure nazionaliatatea galderari, erantzutean: —"España, porque Navarra es una comunidad de España". Afektibitatean ere bilakera paralelo bat dager. Nafartasunak Euskal Herrikotasuna borrokan hartzen du.

A ereduan, zazpi urte arteko haurretan, Nafarroako haurren ahotan Euskal Herria bereziki aipatzen zaigu. Cristinak (7 urte, Beriain) dio, "Euskal Herria es una ciudad grandísima". Iñakik (7 urte, Beriain) dio, "está en Navarra". Eta Danielek (7 urte, Beriain) dio, "donde hablan vasco". Dena urruneko gau-

za litzateke haur horientzat. Zortzitik hamaika urte artekoek, Nafartasuna Espainiari lotuta ageri dute. Berriz ere Esther leluko (9 urte, Beriain): —Zer da Euskal Herria? —"Es una provincia. Navarra también es una provincia". Euskal Herria, Espainia eta Frantzia marrazkiz harremantzeko eskatzean — Kasu guztiak dira deigarriak. Bat aipatzekotan, Doloresen (11 urte, Beriain) marrazkia deskribatuko dut: Iberiako penintsulan Lisboaren puntuan, guti gora-behera, borobil irregular batekin, gorriz "Navarra" izendatzen du. Iberiako penintsulatik kanpo Roussillon inguruan beste borobil batekin, gorriz "País Vasco"deitzen du. Hamabitik hamalau urte artekoetan areagotu egiten da Nafartar-espainiar izaeraren hautematea. Adibidetzat Zuriñe (12 urte, Beriain) daukagu: —"¿Cuál es tu nacionalidad? —Navarra. ¿Por qué? —Porque he nacido en Pamplona y está en Navarra. ¿También eres del País vasco? —Un poco. ¿Se puede ser español y vasco a la vez? —Sí." Afektibitate alorrean ere, nafartasun dimentsioaren erraldoitzea errepikatu egiten da. Gazteenetik helduenera dagoen arrazoitze prozesua kontutan hartzea aski da. Iñakik (7 urte, Beriain) honela erantzutzen du: "¿Qué país te gusta? —Navarra. ¿Por qué? —Porque es un pueblo pequeño". Usuak (12 urte, Beriain): "¿Qué país te gusta? —Navarra. ¿Por qué? —Porque he nacido aquí".

# Ondorioak

J. Piagetek bere ikerketaren ondorioz nazio teoria bat proposatzen du: soziozentrismoa ideologien eraginez haurretan bezala adinekoetan agertzen doala konstataturik, deszentrazioaren beharra ikustean, hori baloreen koordinazioko lanabes batek bermatuko lukeela, esanen digu, hots, nazioak. Garbi dago bada, nazioa, baloreen koordinazioko lanabes denez nola soziozentrismoaren hala ideologien desbideratzearekin aurkatzen dela. Nazioak izaera zeharo positiboa du. Hau horrela, lehenik, gure kultura propioaren deszentrazio ahala daukagu, zeinak harreman interkulturalen epistemologia konparatura garamatzan. Bestalde, aipatu motako sozizentrismoak goi balore den elkarkidetasun ariketa desegin dezake. Hau guztia kontutan izanik, Piagetek nola soziologia morala eta juridikoaren alorrean hala etikarenean elkarkidetasunaren goi balorea aipatuko du.

Bereizkuntzak egitea beharrezko gertatzen zaio hala ere. Bi lehenek ohitura arauen eraikuntza progresiboa gai dutenean, aldiz etikak eta zuzenak beren baliotasuna dutela, esanen digu. Honela, etika Kantek inprimatutako izaera legaliforme eta transzendentalistatik definitiboki askatzen du eta bizitza kognitibo eta afektiboan barnebiltzen diren baloreen elkartze ordenatuaren sistema bihurtzen du. Etika genetikoki eraikitako

esperientziaren amaiera bezala tematizatuz gero "a priori" bezala funtzionatzen agertzen zaigu, nazioaren dimentsio epistemologikoan normatiba izanik.

Arazoa mendebaltarren etnozentrismo kognoszitibotik dator nazionalitate propioko subjektuen deszentrazioa oztopatzen denez. Hori gainditzeko asmoz, Piagetek, azterketa operatoriozko teknika, etnografia, eta bereziki hizkuntza ezagutzak beharrezkotzea gomendatuko du.

Piagetek hasitako ikerketa psikosoziologikoek, baloreen koordinazio lanabesa den nazioa, munduan zehar, estadio kognitibo-afektibo desberdinetan bilakatzen joan ohi dela erakutsi digute. Batzuetan lehenago, beste batzuetan beranduago, arrazoi sozio-historiko konplexuen arabera hasera gertatzen delarik. Honek guztiak " estereotipo nazionalak" beste gisa batez begiratzera garamatza. Argi eta garbi baitago estereotipo nazionalak norberaren izaera gehiegikerian baloratzean daukatela beren erroa. Zurrumurru eta anekdoten mamian elikatzen da. Nahiz eta pretentsio unibertsalekin forma orokor bezala aurkezten zaigun ez du oinarri zientifikorik.

Ez dira objetibotasunean sostengatzen, arerio sentimentuak faboretuaz baizik. Talde nazionalek beren buruez eta bestenez formatzen dituzten irudiei jarraitzen die. Estereotipoak desegiteak elkarkidetasuna erraztuko luke. Zentzu honetan nazionalismoak oztopo dira humanitatearentzat, baina inoiz ez ditzagun nazioekin nahasi. Nazioa portaerarako lauki eta norma denez, elkarrekintza portaeratsuen eremu ere baita, eta ondorioz errepresentazio sozialen, erakunde eta legeen aldakortasunaren eragile eta adierazle da.

# Irudien eranskina

Marrazkiak aipatu eta deskribatu ditugu haur solaskide bakoitzaren emaitzen aurkezpenean. Banan-banan eman genitzakeen solasaldiaren barruan, baina, pentsatu dugu bilduma eginaz esanguratsuenak erreprodukzitzea aski dela. Hara bada hautaturiko marrazkien bilduma. Sei urtetik hamalau urte arteko haurrak barren daude. Emandako argibideekin ez da zalantzarik egon behar nor zein adinetakoenak diren jakiteko.

1. IRUDIA




2. IRUDIA



3. IRUDIA




4. IRUDIA




5. IRUDIA



6. IRUDIA




7. IRUDIA



8. IRUDIA




9. IRUDIA



9 B. IRUDIA




10. IRUDIA



11. IRUDIA



## 12. IRUDIA



13. IRUDIA




14. IRUDIA



15. IRUDIA




16. IRUDIA



17. IRUDIA




18. IRUDIA



19. IRUDIA






20. IRUDIA

21. IRUDIA



22. IRUDIA



# BIBLIOGRAFIA


APALATEGI J. (1992): *Sociología de una nación en movimiento*, Ed. Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz.

APALATEGI, J. (2001): *La idea de nación en los niños vascos*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

APALATEGI J. (2002): "Le temps d'une construction nationalitaire chez les enfants basques à la lumière de Jean Piaget", in *Romania y Vasconia, Hommages à Jacques Allières*, Altantica, Anglet.

BALDWIN J.M. (1894): *Mental development in the child and the race, methods and processes*, Macmillan, New York.

— (1897): *Social and ethical interpretations in mental developement: A study in social psychology*, Macmillan, New York.

BINET A.; SIMON TH. (1905): *La mesure du développement de l'intelligence chez les jeunes enfants*, F. Alcan, Paris.

BRADLEY B. S. (1991): *Des regards sur l'enfance*, Eshel, Paris.

BREMMER J.G. (1994): *Infancy*, Blackwell, Oxford.

BRUNSWIK E. (1956): *Perception and the representative desing of psychological experiments*, University of California Press, Berkeley and Los Angeles.

CAMPOS A.; ASTORGA V.M. (1989): "Valores de concreción y emotividad de las palabras españolas", *Cognitiva*, 2, 99-110

CANGUILHEM G. (1977): *Idéologie et rationalité dans l'histoire des Sciences de la vie, (La formation du concept de régulation biologique aux XVIIIe et XXe siècles)*, 2ª éd., J. Vrin, Paris.

CASTORINA J.A.; Kol. (1989): *Problemas en psicología genética*, Ed.Miño y Avila, Buenos Aires.

COHEN D. (1992): *Piaget: une remise en question*, Retz, Paris.

COLL C.; GILLIERON C. (1985): "Jean Piaget: El desarrollo de la inteligencia y la construcción del pensamiento racional", in Marchesi A.; Carretero M.; Palacios J., *Psicología evolutiva. Teorías y Métodos*, I, Alianza editorial, Madrid.

CORONA Y. DIEZ-MARTINEZ E. (1962): "La adquisión de nociones sociales en el niño: el concepto del trabajo", *Salud Mental*, 11 (1), 55-62.

DELACROIX H. (1936): "La psychologie de la raison", in: Dumas, *Traité de psychologie*, Alcan, Paris, 198-305.

DELVAL J. (1987): "La construcción del mundo económico en el niño", *Investigación en la escuela*, 2, 21-36.

DIAZ BARRIGA F.; AGUILAR J.; HERANDEZ G.; CASTANEDA M.; DIAZ N.; HERNANDEZ S.; MURIA VILA I.; eta PENA L. (1992): "Comprensión de nociones sobre organización social con niños y adolescentes mexicanos de nivel socioeconómico bajo", *Revista de psicología social*, 7 (2),175-193.

DIEZ-MARTINEZ E.; CORONA Y. (1989): "Conceptualización y valoración del trabajo doméstico: un punto de vista infantil", *Cuadernos de Clínica Infantil*, 10, Univesidad Autónoma del estado de Morelos.

DROZ R.; RAHMY M. (1974): *Lire Piaget*, Dessart, Bruxelles.

DUCRET J.J. (1984): *Jean Piaget, savant et philosophe. Les années de formation*, 1907-1924, 2 vol. Droz, Genève.

JANET P. (1926): *Les stades de l'évolution psychologique*, Chahine-Maloine, Paris.

— (1929): *L'évolution psychologique de la personnalité*, Chahine-Maloine, Paris.

KOFFKA K. (1935): *Principles of Gestalt Psychology*, Harcourt Brace, New York.

LAWSON E.D. (1963): "The development of patriotism in children. A second look", *Journal of Psychology*, 55, 279-286.

LEAHLY L.R. (Ed.) (1983): *The child's construction of social inequality*, Academic Press, New York.

NIELSEN R.F. (1951): *Le développement de la sociabilité chez l'enfant: étude expérimentale*, Delachaux, Neuchâtel.

PALACIOS J. (1994): *Jean Piaget y las ciencias humanas. Epistemología, sujeto y nación*, Ed. Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz.

PERRET-CLERMONT A.N. (1984): *La construcción social de la inteligencia en la interacción social*, Visor, Madrid.

PIAGET J. (1971): *El criterio moral en el niño*, Fontanella, Barcelona.

— (1977): *El juicio y el razonamiento en el niño*, Guadalupe, Buenos Aires.

PIAGET J. eta INHELDER B. (1966): *L'image mentale chez l'enfant*, P.U.F., Paris.

PIAGET J. eta WEIL A.M. (1978): "El desarrollo en el niño de la idea de la patria y de las relaciones con el extranjero", in: Delval (Ed.) *Lecturas en Psicología del niño*, II, Alianza, Madrid.

RIGNANO E. (1920): *La psychologie du raisonnement*, Alcan, Paris.

TAINE H. (1870): *De l'intelligence*, 2ª éd., Hachette, Paris.

TARDE G. (1890): *Les lois de l'imitation*, 2ª éd., 1895, Alcan, Paris.

TURIEL E. (1984): *El desarrollo del conocimiento social. Moralidad y convención*. Debate, Madrid.

TURIEL E.; ENESCO I.; LINAZA J. (Eds) (1989): *El mundo social en la mente de los niños*, Alianza Editorial, Madrid.

VEGA L.; OLLINGUER E.; ZIMERMAN R.; FIGUERO A.J.; GUTIERREZ R. (1987): "La representación infantil de los sismos", *Salud Mental*, 10 (1), 66-71.

WOODS P. eta HAMMERSLEY M. (1995): *Género, cultura y etnia en la escuela: Informesetnográficos*, Paidós, Barcelona.